

MIGRAZIOA: Australia eta
Kanbodia, Ozeano Bareko
iheslariekin negozio egiten > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aldaketaren aldeko ilusioaren
arrastoen bila **BEÑAT ZALDUA > 11**

2015eko maiatzaren 9a | IX. urtea • 416. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



NOLA ERAIKI HAUTAGAI BAT? > 12

**Australia eta Kanbodia Ozeano
Bareko iheslariekin negozioa
egiten ari dira** 04

Nepal, hondakin lurrikara 08

**Komunikazioaren
eraginkortasuna, lupaz** 12

**«Zain zure hitzak» aniztasun
sexualaren alde** 16

**e.lkarrizketa: Esther Franos,
Zuzenbide irakaslea** 22

**Erreleboa Bizkaiko baserri
ekologikoetan** 26


**Infraganti: Aritz Urtiaga, Aiala
Zarautz eskubaloit taldeko kidea** 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Eskoziarren arrakastatik lezioak atera nahian
10 **Ander Gortazar:** Leherketa modernoa
11 **Beñat Zaldua:** Aldaketaren aldeko ilusioaren arrastoen bila
15 **Ainara Azpiazu «Axi»**
19 **Koldo Sagasti:** «Nakba» gehiagorik ez
20 **Arantxa Urbe:** Geure buruei galdetu genienekoa
21 **Iker Barandiaran:** Pareko jarlekukoen duintasuna
27 **Mirari Martiarena:** Kasualitatea
30 **Montse Maritxalar:** Teknologia gazteentzako debeku?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iñaki Soto

Eskoziarren arrakastatik lezioak atera nahian

Zein da eskoziar abertzaleen arrakastaren formula? Hau da, besteak beste, iragan asteko britainiar hauteskundeek gutako batzuei piztu diguten galdera. Formula magikorik ez dela existitzen jakin arren, lezioak ateratzen saiatzen gara. Denok esaten baitugu kasu guztiak desberdinak direla eta nekez atera daitekeela eredu perfekturik. Perfektuak ez badira ere, porrotetatik baino hobe arrakastetatik ikastea, ezta? Porrotetatik ere ikas daiteke, noski, baina hobe besteen porrotetatik bada. SNPk laboristen porrotetatik asko ikasi du, ziur. Hala ere, lezio horietatik eredu bat atera da, ez anti-eredu bat.

Argi dago beste nonbaiten gertatzen denak ez duela hemen itzulpen errazik, matematikorik. Matematikak errazak balira bezala! Gizarte mailako aldaketa sakonak tartean direla, zenbait aldaketa ez dira soilik politikoki ezinezkoak edo oso zailak, matematikoki ere konplikatua dira. Hori ulertzeko baten eta kentzen jakitearekin nahikoa izan arren, sarri matematikak albo batera uzten dira politikan. SNPren arrakastaren ardatzetako bat, ordea, hauteskunde sistemen ezagutza izan da. Segmentazioa klabea da horretan, bai zentzu matematikoan –inkestean irakurketan, adibidez–, bai ikuspuntu politiko sakonago batetik –boto urbanoaren eta landatarren arteko orekan, adibidez–.

Metrikaren beste parametro posible bat denbora da. Eskoziarrek epeak oso ondo kudeatu dituzte, mugimendu taktikoen eta estrategikoen arteko loturak fin eginez eta edozein gertakari bertan txertatuz, agendan kokatuz eta aukera gisa ulertuz. Malgutasuna, gerri politikoa, eskoziar politikarien beste ezaugarri bat da. Errealismoa magikoa da, beti.

Eskoziar liderrek denbora politikoa ondo kudeatzen jakin dute, epe laburrean iraultza bat eragiteraino. Iraultzak, lasaiak zein bortitzak, egun batetik bestera ez direla gertatzen jakin arren, urtebetean Eskozian gertatutakoa laburbiltzen ahalegintzen gara. Historia neurtzeko erabiltzen diren neurriek eta pertsonen bizitza neurtzeko erabiltzen diren unitateek izen berbera izan arren, “urteak”, batzuen eta besteen *tempus* eta eskalak zeharo desberdinak dira. Eskozian gaur egun politikaren oinarritzko neurri unitatea «belaunaldia» dela esango nuke.

Horrek ez du, inondik inora, nazionalistek tarteko helburuak eta epemugak alboratzen dituztenik esan nahi. Ikusi dugunez, hauteskundeak, legegintzaldiak eta instituzioak helburu zehatzak dira beraientzat, bestelako helburu estrategikoak lortzeko ezinbesteko bitarteko eta pailanak. Horietan arrakasta lortzea ezinbestekoa da helburu orokorretan, epe luzeagoetan, arrakasta izateko.

Nolanahi ere, arrakasta, galtzea eta irabaztea ez bezala, gauza erlatiboa izan daiteke. Duela zazpi hilabete independentistek erreferenduma galdu zuten, baina, hala eta guztiz ere, arrakasta itzela lortu zuten. Matematikak eta batez ere botere desoreka kontuan hartuta, emaitza zehatza ez zelako txarra izan. Baina, batez ere, bozketa galdu eta gero, honen kudeaketa bikaina egin zutelako.

Proiektu politiko nagusietan arrakastaren formularen bilaketa etengabea ez galtzeko beldur atabikoarekin nahasten da. Joera kontrajarriak dira eta, gehienetan, biga-

Eskoziar liderrek denbora politikoa oso ondo kudeatzen jakin dute, epe laburrean iraultza bat eragiteraino. Eskozian gaur egun politikaren oinarritzko neurri unitatea «belaunaldia» dela esango nuke

rrenak lehendabizikoa deuseztatzen du. Unionistek hai-zatutako beldurrari independentistek ez diote beldurrik izan, beren burua indartzeko baliatu dute. Beldurraren kudeaketan maisu jokatu dute eskoziarrek, batez ere erreferendumeko kanpainatik hona.

Hori egin ahal izateko zuzendaritza politikoa eta lidergoa oso garrantzitsuak izan dira. Salmond-Sturgeon bikotetik harago, maila politiko itzela erakutsi dute, urrats oso neurtuak eginez. Honekin guztiarekin lotuta, orokorrean, eskoziarren profesionaltasuna aipatuko nuke, inbidiagarria iruditzen baitzait.

Eskoziar arrakastaren formularen topa daitezkeen zenbait elementu aipatu ditut hemen. Horien nahasketa oso berezia da, zalantzarik gabe, eta esportatzen zaila. Nire asmoa ez zen leziorik ematea, hauteskunde hauetatik bakarra atera baitut nik: «potroak ikusi ondoren, arra». •

MIGRAZIOA ASIAN

Australia eta Kanbodia, Ozeano Bareko iheslariekin negozio egiten

 **JENDARTEA** / Pablo L. Orosa (Phnom Penhetik)

Lehen iheslari taldea eztabaida handia sortu duen Nauru uharteko zentrotik eramango dute: hamar pertsona, beste-ei bidea zabaltzeko.

«Nauru eta Manusetik iheslariak Kanbodiara eramanda Australiako Gobernuak gizakien miseria salerosten ari da, eta orain erabat bakarrik uzten ditu», salatu du Chris Breen Melbourneko Refugee Action Collective elkarteeko elledunak.

Asiako herrialde txikiak oso historia iluna du iheslariei emandako tratuari dagokionez. Hala ere, berak hartuko ditu mila iheslari inguru hurrengo lau urteetan, 35 milioi dolarreko laguntzaren truke. «Negozio hutsa da, arazo humanitario bati salneurria ipini diote», salatu du Billy Chia-Lung ekintzaileak Phonm Penh Kanbodiako hiriburuan CHRA Cambodian Human Rights Action Committee elkarteak duen bulegotik.

Ekimenaren sustatzaileek esan dutenaren arabera, iheslariak Kanbodian dirua jasoko dute (eskudirutan zein bankuko kontu batean). Gainera, lana aurkitzeko laguntza emango zaie, hezkuntza jasotzeko aukera izango dute, hizkuntzak ikastekoa, eta lau urteetarako aseguru medikua. Lehendabiziko hiru hilabeteetan etxebizitza ordaindu beharrik ez dute izango eta, hortik aurrera eta lehen urtea amaitu arte, alokairua ordaintzeko laguntza jasoko dute. Horrela esaten da bederen Australiako agintariak Nauruko zentroan banatzen aritu diren idatzi batean.

XANTAI A NAURUKOEI

Refugee Action Collective elkar-teak goitik behera aztertu duen dokumentuak eranstean duen laguntza horiek Kanbodiara joatea berehala onartzen duten iheslarientzat soilik izango direla, eta hortik aurrera bestelako laguntzak emango dituztela. Breenek egiten duen irakurketaren arabera, era horretan estutzen ditu iheslariak Australiako Gobernuak, Kanbodiara joatea onar dezaten.

Iheslariak mugitzeko ituna iazko irailean sinatu zutenean oso garbi adierazten zen iheslariak onartuz gero eramango lituzketela beste leku batera, ez bestela.

Baina ekintzaileek Nauru uhartean bertan bildu dituzten datuen arabera, bertan daudenek ez dute onartu horrelakorik. Are gehiago: orain aste batzuk, Anibare Lodge izeneko eremuan zeuden 200 iheslari inguruk birkokapenaren aurkako mobilizazioa egin zuten. «Protestak oso garbi adierazi zuen Kanbodiari buruz Nauruko gehienek pentsatzen dutena», nabarmendu du Ian Rintoul Refugee Action Collectiveko kideak.

«Lotsa» hitza erabili izan da Nauruko egoera deskribatzeko.

Nauru koralezko uharte bat da, munduko errepublika independenterik txikiena, bai azalera kontuan hartuta, bai biztanleriagatik ere. Ozeano Barearen hego-mendebaldean dago, ekuatoretik oso hurbil, Australiatik ipar-ekialdera, 4.000 kilometro ingurura.

Teorian independente izanda ere, Australia da bertako benetako kontrola duena. 10.000 pertsona bizi dira bertan, horietako 2.500 inguru iheslariak eta asilo politikoa eskatu dutenak.

GERRATIK IHES EGITEN

Afrikatik, Ekialde Hurbiletik eta Asiako hegoaldetik Australiako itsasertzeko bidean zihozazela harrapatu zituzten. Bertako eremuetan irandarrak, pakistanda-

rrak, afganiarrak, somaliarrak, sudandarrak eta uigur etniako (Txinako mendebaldean dago beren herrialdea) kideak daude gaur egun.

«Bertan bizi direnek oso baldintza txarrak dituzte, bai iheslariak bai atxilotze zentroa jada uzteko aukera izan dutenek. Baldintza krudelak oso. Oihanaren erdian utzi dituzte, uharteko biztanleekin inolako harremanik izateko aukerarik gabe, oso urruti baitaude. Ez dute ez lanik ez estolderiarik. Ezta zaborrak biltzeko zerbitzurik ere. Etxeko-ei telefonoz deitu ahal izateko dirurik ere ez dute izaten. Gainera, Naurutik ateratzeko baimenik ez dute», esplikatu dio GAUR8ri Breenek posta elektronikoz. Gainera, egoera gehiago gaiztotzeko, azken urteotan Nauruko bertako gaizkileen jomuga bihurtu dira errefuxiatuak. «Iheslarien protesten eraginez, 200 pertsona inguru atxilotu zituzten, umeak barne. Protestari eutsiz gero, hiru urteko kartzela-zigorra ezarriko zieten esan zieten», dio elledunak.

Australiako Gobernuak iheslariak bere itsasertzera iritsi ez daitezen sortutako atxilotze zentrorik ezagunena da Nauruko. Papua Ginea Berriko Manus uharteko instalazioak ere helburu berarekin erabiltzen dira. Amnesty International gobernuak kanpoko erakundeak argitara eman berri duen txosten batek bertako baldintzak oso txarrak direla salatu du: iheslariz lepo egindako gelak, edateko moduko urik ez eta osasun zerbitzurik ez.

GEHIEN SALATUTAKO POLITIKA

Nauru eta Manuseko zentroak «Ozeano Bareko Konponbidea» izeneko egitasmoaren zati dira, Australiak 2001etik 2007ra bultzatu zuen politikaren beste kapitulu bat, agian gehien salaturakoa. Ekimen horren bitartez, herrialde aberatsak bere mugak aldatu zituen: Indonesiatik gertu dauden ehunen bat uharte ez dira Australia, etorkinak eta iheslariak hartzeari dagokionez. Beraz, uharte horietara iristen diren etorkinei ez die jaramonik egiten Gobernuak. Aldi berean,

Australiako segurtasun indarrak, iheslariak itsasoan erreskatatu eta beste ontzi batera eramaten. GAUR8



Armadak Relex operazioa jarri zuen abian, ozeanoko zati horretan legez kontra dabiltzan ontziak geldiarazteko. Harrapatzen zituztenak eramaten zituzten Nauru eta Manusera.

Gizarteak horren aurka emandako erantzuna indartsua izan zen. Iheslariak zituzten baldintza penagarrien inguruko txostenek gehiago haserretu zituzten herritarrak. Azkenean, Kevin Rudd garaiko lehen ministro laboristak politika hori alde batera uztea erabaki behar izan zuen. 2008. urtea zen.

Baina agintariaren erabakiak ez zuen giroa baretu eta eztabaidak gizartean jarraitu zuen. Geroztik izan diren gobernuek etorkinen aurkako neurriak gogortu baino ez dituzte egin. Baita Ruddek 2013an zuzendu zuen Exekutiboak berak ere. Iritzi publikoak “Ozeano Bareko Konponbidea” berreskuratu nahi zuela salatu zuen.

KANBODIA ETA FILIPINAK

2011n Julia Gillard laborista zen lehen ministroa. Malaysiarekin itun bat sinatzeko ahalegina egin zuen, asilo politikoa Australian eskatu duten 800 lagun bertara eramateko. «Pertsona trafikatzailleen negozioari amaiera jartzea» zen ekimenaren helburua, Gillardek berak esan zuenez.

Baina epaileek erabaki zuten ituna Konstituzioaren aurkakoa zela, Malaysiak ez baititu sinatu iheslarien inguruko nazioarteko itunak. Baldintza horietan Australiak ezin zuen arazoa konpondu. «Mapari erreparatzen badiozu, ikusiko duzu Asiako hego-ekialdean Kanbodia eta Filipinak direla itun horiek sinatu dituzten estatu bakarrak», adierazi du Chia-Lung ekintzaileak. «Kanbodia bazkide ona da eta bertako Gobernuak dirua hartzeko prest dago».

Ofizialki Kanbodiak Iheslariaren Konbentzioarekin bat egin badu ere, iheslariak eta asilo politikoa eskatu duten pertsonak hartzeko garaian kontrako joera erakutsi izan du. Vietnameko jatorriko herritarrak, esaterako, egoera jasanezinean daude. Khmer Gorriek bidali egin zituzten



Bangladesh eta Myanmartik abiatutako iheslariak, Malaysiako Poliziaren egoitzan, joan den astelehenean itsasoan erreskatatuak izan ondoren. Manan VATSYAYANA | AFP

MYANMARTAR IZAERA ONARTZEN EZ DIETENEN DRAMA

Asiako hego-ekialdeko uretan milaka gizaki daude egunotan, jazarpena, gerra eta miseria atzean utzi nahian. Australiak ahal duen guztia egiten du pertsona horiek bere lurretara iritsi ez daitezen, eta Indonesiak eta Malaysiak iheslariz betetako itsasontziren bat ikusten dutenean, ura eta janaria eman eta aurrera jarraitzeko esaten diete, ez baitituzte beren herrialdeetan nahi. Egunotako drama ikaragarri horren atzean Myanmarren betidanik baztertuta egon den rohingya herria dago. NBE Nazio Batuen Erakundeak eman dituen datuen arabera, azken hilabeteotan bikoiztu egin da etnia horretako kideen exodoa.

NBEk berak emandako datuen arabera, rohingya etniako 729.000 gizaki bizi ziren 2009an. Myanmarko mendebaldean dagoen Rakhine (Arakan, garai batean) estatuko iparraldean bizi dira batez ere, Bangladesheko mugatik gertu. Musulmanak dira. Britainiarrek XIX.

mendean eremua kolonizatu zutenean, etorkin asko bertaratu ziren. Gaur egun rohingya etniako kideek gutxiengo bat osatzen dute beren lurraldean eta Myanmarko diktadura militarrek legez kontrako etorkin moduan tratatzen ditu. «Erabat instituzionalizatutako jazarpenaren eta delitu ikaragarrien biktimak dira», Arakango Rohingya Erakunde Nazionalak salatu duenez.

Myanmarrek ez die myanmartar izaera onartzen, Bangladeshetik etorritakoak direlakoan. Ashin Wirathu fraide budistak orain hiru urte abian jarri zuen 969 Mugimenduak ere argudio bera erabili zuen, rohingya etniakoen aurkako erasoak justifikatzeko. Erasoaldiari hasiera emateko, emakume gazte budista baten bortxaketa erabili zuten. Ustez etnia horretakoak ziren erasotzaileak eta berehala atxilotu zituzten (batek bere buruaz beste egin zuen eta beste biei heriotza zigorra ezarri zitzaaien).

Hala ere, budista batzuek hamar musulman ezagun zihoazen autobus bati egin zioten eraso eta jipoitu egin zituzten bertan, hil arte. Poliziak ez zuen inor atxilotu. Ondorengo erasoetan 300 rohingya inguru hil zituzten. Honela esplikatu zituen erasook fraide budista batek: «Historikoki frogatuta dago rohingyak Bangladeshetik etorritako legez kontrako etorkinak direla, britainiarrekin etorri zirela. Ez dakite bakean bizitzen. Gure emakumeek dirua ematen diete beraiekin ezkon daitezen eta islama besarka dezaten. Gero rakhine etniako emakumeek baino ume gehiago izaten dituzte. Horrela, gure populazioarentzat baliabide gutxiago geratzen dira. Gainera, komunitate biolentoa osatzen dute».

Gobernuak bat egiten du garbiketa etnikoa justifikatzeko ideia horiekin. Milaka rohingya ghettoetan sartu dituzte eta baldintza penagarrietan bizi dira. NBERen laguntzari esker jaten dute.



Australiako herritarrek iheslarien egoera salatzeke ekitaldi batean hildakoen alde kandelak pizten. GAUR8

herrialdetik agintaritza 1975ean lortu zutenean. 1980ko hamarkadan itzuli ziren Kanbodiara, baina Gobernuak legez kontrako etorkinak deitu zien eta ez zien herritartasuna eman nahi izan. Beraz, ezin zuten lurrik erosi, esaterako. Geroztik vietnamdar jatorriko 600.000 kanbodiari inguru Tonle Sal lakuaren ondo-ko herrixkatan bizi dira, edozein erasoren aurrean beren burua defendatzeko inolako aukerarik gabe, legearen arabera kanbodiarrak ez direlako.

ZAPALDUTAKO HERRIAK

Larriagoa da uigur etniako hoge-lagunekin Phnom Penheko Gobernuak egin zutena. Txinako mendebaldeko herri musulman horretako kideek asilo politikoa eskatu zuten 2009an, baina Kanbodiako agintariek guztiak Txinara deportatzea erabaki zuten. Gutxienez horie-

tako bi espetxean daude gaur egun, ekintzaileek emandako informazioaren arabera.

Urte berean, Hun Senen Exekutiboak Vietnamera itzuli zituen montagnard etniako 45 lagun. Asilo politikoa eskatu zuten Kanbodian. Alfer-alferrik, ordea. «Kanbodia ez da leku egokia Nauruko iheslariak bidaltzeko. Mundu osoan gutxien garatu diren herrialdeetako bat

«Negozio hutsa da, arazo humanitario bati salneurria ipini diote», salatu du Billy Chia-Lung ekintzaileak CHRA Cambodian Human Rights Action Committee elkartearen bulegotik

«Asilo politikoa eskatu duten iheslari horiek Australiaren ardura izaten jarraitzen dute», nabarmendu du Chris Breen ekintzaileak, Canberrak aurkakoari eusten badio ere

da, eta giza eskubideen errespetuari dagokionez sailkapen guztietan atzeko postuetan ageri da», laburbildu du egoera Breen ekintzaileak.

USTELKERIA

Chia-Lungek nabarmentzen duenez, Australiaren eta Kanbodiaren arteko ituna «negozio bat da»: batek etorkinen arazoa «konpontzen» du eta besteak diru asko eskuratzen du. Pentsa, 35 milioi dolar lau urtetan.

Dirutza horri erantsi behar zaizkio Australiak Kanbodiari garapen proiektuak abian jartzeko emandako 79 milioi dolarrak. «Ez dugu uste 35 milioi dolar horiek iheslariak hartzeko erabiliko dituztenik. Bidean milioi asko galduko dira», adierazi du Chia-Lungek.

Izan ere, munduko herrialde ustelenetakoa da Kanbodia. Nazioarteko Gardentasuna izeneko

governuz kanpoko erakundearen arabera, 175 herrialdeko sailkapenean 156. lekuan dago unetan Kanbodia.

«Eroskeria» hitza erabiltzen du Breenek. Etorkinen aldekoek diote iheslariak Kanbodiara eramanda beraien egoera larriagotu baino ez dela egingo. «Ez dute bertako hizkuntza ezagutzen, ez dute ezagun bertako kultura», nabarmendu du Chia-Lungek.

Gainera, Kanbodiako herritartasuna lortu ahal izateko zazpi urte egin beharko dituzte bertan, alegia, Vietnameko apatri-den egoera berean egongo dira.

«Azkenean egiten ari direna da iheslariak atxilotze zentro batetik beste batera eramatea», esan du CHRA erakundeko ele-dunak. «Asilo politikoa eskatu duten iheslari horiek Australiaren ardura izaten jarraitzen dute», eransten du Breenek, Canberrak ezetz badio ere.

IHES EGINDAKOEK ITZULTZEAN ERAKITZEN DUTEN KANBODIA BERRIA

Gaur bertan bukatuko da Battambang hirian Tini Tinou nazioarteko zirku jaialdia. Orain ia berrogei urte herrialdetik ihes egin behar izan zuten herritarrek Kanbodiara itzultzean sortu zuten Phare zirkuarekin lotutako proiektu sozialak antolatu du ekimena. Asiako eta Europako bost herrialdetako zirku konpainiak eta dantzariak egon dira azken egunotan Phnom Penh hiriburuan eta beste hirietan. Ilusioa eta magia sarraskien erreinuan. Genozidioaren amesgaiztoa gainditu eta bestelako Kanbodia eraikitzea, aurrera ateratzea, posible dela sinetsi nahi dute Pharekoek.

Agertokian argi gorria da nagusi. Amesgaiztoen giroa lortu nahi dute, Sokharen historia kontatzeko. Aitonarekin batera Khmer Gorrien mendean zegoen herrialdea utzi eta Thailandiako iheslari eremu batera iritsi zen protagonista, 1979an. Pin Phounam bihurrikariak esplikatu digu Sokha Kanbodiatik ihes egiten duen emakumea dela. Lan asko egiten zuen kanpalekuan, gauean Khmer Gorrien

garaiko sufrimendua burura itzultzen zitzaion arren. Amesgaiztoak kontuan hartu gabe bere herrira itzultzea erabakitzen du, artearen bitartez umeei laguntzeko, eta, bide horretatik, Kanbodia berria eraikitzeko. Agertokian Phounam kontorsionistak jarrera sinestezinak hartzen ditu Sokharen sufrimendua adierazteko. Pixkanaka oinekin eusten duen arku baten soka tenkatzen du, tiro egin eta amesgaiztoa ordezkatzeko duen globoa lehertu egiten da.

Phare Khuon Det arte eskola sortu zuten hamar artista haietako baten historia kontatzen digute orain Pharekoek. Pol Pot eta bere jarraitzaileak agintean egon ziren urteetan (1975-1979), herritarren %25 inguru hil zituzten. Artisten artean proportzioa okerragoa izan zen: %90 hil zituzten. Garai hura bukatzean, inoiz baino garrantzitsuagoa zen arte eskola bat sortzea.

Gaur egun Tini Tinou jaialdian esku hartzen duten artista gazteek ez zuten garai hura ezagutu, baina erabat

suntsituta zegoen herrialde batean bizitzearen ondorioak bai, horiek oso ezagunak dituzte. «Munduan arazo ugari dago, arazo asko neure herrialdean, pobrezia, ustelkeria... Batzuetan zaharrek esaten digute zortea izan dugula gazteok, Khmer Gorrien garaia ezagutu ez dugulako, baina gaur egun ere ez da erraza izaten aurrera ateratzea», adierazi du artistak.

Pin Phounam bera 7 urterekin hasi zen lanean. Anaiekin batera, zaborra biltzen zuen. Eskolara joan baino lau ordu lehenago jaikitzen zen ohetik, etxean bere laguntza ezinbestekoa baitzen, aita erabat alkoholizatuta zegoelako. «13 urte nituela hasi nintzen Pharen. Bertan hezkuntza eman zidaten eta bertako formazio zentroan hartu ninduten», kontatu du. Herrialdeko ipar-mendebaldean dagoen Battambang hiriko zentroaz ari da. Bertan gaur egun 1.200 ikasle dituzte, guztiak ere premia handiko familietako kideak.

Pharek zirku bat zabaldu zuen orain bi urte Siem Reap hiri turistikoa.

Ikasle batzuek bertan egiten dute lan eta eskola finantzatzeko laguntzen du zirkuak. Nerabe horietako batzuk jaialdian egon dira, antolatzaileen helburua «parte hartzaileek bizitzen dutena konpartitzea eta ikastea baita», Huot Dara zentroko zuzendariak esplikatu duenez.

Suitzako gimnastika erritmikoa, Vietnamgo magia, Taiwango akrobaziak, Portugalgoak, frantsesak... Era guztietako ikuskizunak kabitzen dira Pharekoen tailerretan. Kanbodiako betiko zirku tradizionalaren harmonia XXI. mendeko zirkuaren pasioarekin nahastuta.

Tsung-Hsuan Lee Taiwango koreografoa liluratu du «Europako zirku berriaren sormenak». «Taiwanen irakasleak gonbidatzen ditugu gure mintegietara ikasi nahi dugulako, horixe baita ikasteko betiko modua. Baina ez da nahikoa, ideia berriak sortu nahi ditugu, istoriei esanahia emateko era berriak behar ditugu». Kanbodian ere ikasten aritu da.



Phare zirkuarekin lotutako proiektu sozialari esker milaka kanbodiarrak izaten dute aurrera ateratzeko aukera bat. GAUR8

HONDAKIN LURRIKARA

Nepalek 17 eguneko epean jasandako bi astinaldiek herrialdea suntsitu dute

 **GIZARTEA** / Sanjeev GIRI | EFE

Apirilaren 25eko lurrikara odoltsuaren osteko dozenaka errepliketara ohitzen hasita ziren nepaldarrak. Baina asteartekoa ez zen erreplika hutsa izan, ia indar berdineko beste lurrikara bat baizik. Egia esan, ordurako ez zegoen gauza handirik zutik Asiako herrialde txiroan. Nepaldarren esperantza apurrak ere hondakinen azpian daude orain.

Apirilaren 5ean gutxienez 8.000 hildako eta txikizio izugarria eragin zituen lurrikararen ostean, ehun bat erreplika pairatu ditu Nepalek azken bi asteetan. Lehen egunetan izua zen nagusi herritarren artean eta jende askok kalean egiten zuen lo, zutik zirautez etxeak gainera eroriko ote zitzaizkien beldur. Lurrikara handi baten ostean horrelako erreplikak ohikoak direla eta bizitzak aurrera egin behar duela jakitun nepaldarrak apurka-apurka euren herri eta hirietara bueltatzen hasiak zirenean, baina, bigarren lurrikara batek, ia aurrekoa bezain bortitza, Asiako herrialde txiroa berriro astindu zuen asteartean.

Aste honetako lurrikarak 7,3 graduko indarra izan du Richter eskalan, eta ehun hildako inguru utzi ditu bai Nepalen bai inguruko herrietan. India, Bangladesh eta Txinaren agindupean den Tibet kolpatu ditu eta hildako kopuruak txikia badirudi ere, batik bat apirileko astinaldiak eragindako hildako kopurua ikusita, honakoa izan behar da kontua; jada ez zegoen erortzeko gauza handirik Nepal.

BERRIRO IHESEAN

Azken egunetan Katmandu hiri-burura itzulitako ehunka nepaldarrek ihesari berrekin diote. Autobus geltokietan jendetza

bildu da maleta eta zorroekin, hiri uzteko irrikatan. «Bizirik baldin bazaude dena duzu, eta horregatik erabaki dut behin betiko Katmandu uztea», dio Hari Ramek. Beste asko bezala, hiri-buruko geltokirik handienean da, Kalankin, Nepaleko mendebaldeko Deng hirira eramango duen txartela erosteko ahalegin hutsalean.

Katmandun bi ordu baino ez zeramatzan Rojina Pathak lurrikara berriak hiria astindu zutenean. Ilargipean lo egitea beste

Katmanduko biztanle ugari kalean lo egitea erabaki dute bigarren lurrikararen ondoren. Roberto SCHMIDT | AFP

aukerarik ez zitzaion geratu jaiotzez Dolakha barrutikoa den emakumeari. Dolakhatik gertu dagoen Sinshupalchok barrutia izan da bigarren lurrikaran kaltetuena. Apirilaren 25ean ere zonalderik zigortuena izan zen, hildakoen herena bertan hil baitziren. Horrela bada, nora joan ere ez daki Rojina Pathak. «Nire ahizpa zaharrenak Kavrepalanchowkeko ospitalean aurkitu du babesa. Eguerdirako berarekin bilduko naiz», dio emakumeak. Eta gero? «Batek jakin, hemen behintzat ez dago etorkizunik», nabarmendu du.

EZ BUELTATZEA HOBE

Berak bezala, Katmanduko milioitik gora biztanlek alde egin zuten Nepalgo hiriburuari izena ematen dion bailaratik lehen lurrikararen ostean. Buelatu direnek ezbehar berriarekin egin dute topo, eta, bueltatzear zirenek, berriz, asmoak bertan behera utzi behar izan dituzte. «Izututa nago. Apirileko lurrikaren ondorengo hiru egunetan ez zen ez babesik, ez jakirik ez garraibiderik inon. Ez dut antzerako egoera bati berriro aurre egiteko indarrik», azaldu du Trishna Girik. Nepalgo ekialdeko Biratnagar hiritik Katmandu-





ra eraman behar zuen hegazkina ez du azkenean hartuko. Bigarren lurrikararen bezperan erosi zuen txartela.

Beste askok bezala, Trishna Girik ere ez du inolako gogorik leku batetik bestera korrika ibiltzeko lurra mugitzen den aldi oro. Azken ezbeharraren biharamunean bertan hiru erreplika izan ziren. Etengabe ari da lurra mugitzen.

POLITIKOAK ETA PAZIENTZIA

Azken 80 urteetan Nepalek pairatu duen lurrikararik bortitzea izan zen apirilaren 25eko (7,8 gradu Richter eskalan). Inguruotan izan da odoltsuagorik azken hamarkadan, 2005ean Kaxmirren 84.000 hildako eragin zituen hain zuzen ere.

Nepalgo Parlamentuan lurrikararen inguruan ari ziren eztabaidatzen aurreko asteartean, maiatzaren 12an. Eguerdia zen eta Txinak finantzatutako Parlamentuaren egoitzatik arrapaladan irten ziren diputatuak, bigarren lurrikararik ihesean. «Tamaina honetako natur ezbeharren aurrean pazientzia eta indarra baizik ez zaizkigu gertzen», nabarmendu zuen lehen ministroak, Sushil Koiralak.

Katmanduko Bhaktapur auzoan txikizioa begi bistakoa da, eta zaila da hondakinak lehen edo bigarren lurrikarak eragindakoak diren jakitea. Prakash MATHEMA | AFP

Parlamentuak zutik iraun du. Ez ordea Katmandu hiriko maki bat eraikinek. Nepalgo telebistak eraikin historikoak balantzaka mugitzen erakusten zuten irudiak zabaldu zituen.

Landa eremuetan lur jausi ugari eragin ditu lurrikarak. Gorkha eskualdean, apirilaren 25eko lurrikarak gogor pairatu zuen zonaldean, hainbat bide eta errepide moztuta daude berriro ere asteartean izandako lur jausien eraginez.

Save The Children erakundeak jakitera eman duenez, Balaju Nayabazar Katmanduko auzoa guztiz suntsituta dago. «Berehala igarri genuen lurrikara eta jendetza korrika atera zen, nora ezean», azaldu du Sureshe Sharma lurrikara gertatu zenean azokan zen 63 urteko emakumeak. «Nahiko lan izan nuen bertatik irteteko», gaineratu du. «Aurrekoan ere etxetik justu-justu irten nintzen. Oraingoan inpresio bera izan dut. Ezin dut sine-tsi. Zorigaitza berriro hasi da».

AGINDUTAKO LAGUNTZAREN ZAIN

Katmanduko nazioarteko aireportua ere itxi egin behar izan zuten asteartean. Bertara iritsi beharko litzateke nazioarteak

agindutako laguntza, tartean ura, jakiak eta osasun materiala. Hala ere, lehen lurrikararik hiru astera, agindutakoaren %15 baino ez da iritsi. Horrez gain, nazioarteko erreskate talde gehienak etxera bueltan ziren jada bigarren astinaldia izatean, hondakinen artetik jendea bizirik ateratzea dagoeneko ezinezkoa zela eta Nepalgo Gobernuak berak aginduta. Indiako, Txinako eta Ameriketako Estatu Batuetako talde berezi batzuek gutxienez bertan jarraitzen zuten. Hala, sei *marine* eta bi soldadu nepaldar zeramatzan helikoptero bat desagertu egin zen azken lurrikaran Charikot herritik gertu, Nepalgo ekialdean.

Jamie McGoldrick Nazio Batuen ordezkariak ohartarazi duenez, «jendea izututa dago. Oso egoera gogorra da, baita psikologikoki ere». Ez da gutxiagorako: lehenengo lurrikarak 600.000 etxe suntsitu zituen eta bigarrenak hondamendia areagotu du, herritarren esperantza apurrak suntsituz. Hamazazpi egun geroago nepalدارrak hasierako puntura itzuli dira. Eta kale gorri, beldurrak jota. Jaioterrian errefuxiatu bailiran. Epe luzerako, gainera.

HIRUGARREN ERASOA MONTZOI ETA EURIEKIN IRITSIKO DA

Save The Children eta Plan International hurrez arduratzen diren gobernu kanpoko erakundeek Nepalgo txikiene bizi duten egoera latzaren berri eman dute. Lehen lurrikararen ostean egoera gogorra bizi zuten jada, eta bigarrena ere pairatu behar izan dute. Hori gutxi ez eta montzoiaren iritsiera espero da datozen asteetarako. Hala, euriteak etxetik kanpo pairatu beharko dituzte, kanpin dendatan. «Oso kezkatuta gaude bi lurrikarak pairatu dituzten umeen etorkizunarekin. Dena galdu dute eta beldurtuta eta estresatuta daude», azaldu du Save The Childrenek Nepalen duen zuzendariak, Delilah Borjak. Ehunka mila biztanle etxerik gabe egongo dira montzoiak ekarritako euriteak hastean, hiru aste barru, eta «horrek krisi humanitario berria eragin dezake, gaixotasunak hartzeko arriskua handia izango delako».

Plan International erakundeak gogora ekarri duenez, azken egunetako euriek lur jausi handiak eragin dituzte eta montzoiak arrisku hori areagotu egingo du. «Kale gorrian, hotzak eta hezetetasunak jota daude familiak, haur eta umeekin. Ez dute etxerik eta dutenek ez dute inolaz ere itzultzerik nahi», azaldu du Nepal Plan egitasmoko eledunak, Mattias Brynesonek.

Uneotan milaka kanpin denda banatzen ari dira ekintzaileak bai Katmandun bai herrietan. «Baina asko dago egiteko». Eta nazioartearen laguntza ez da inondik ere nahikoa. Benetako laguntza behar da, ez betiko malkoak.



Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Leherketa modernoa

Arkitektura Modernoari heriotza kolpea emateko aukera historikoarekin esnatu zen Ivy Hodge 1968ko maiatzaren 16 hartan, patu horren jakitun ez bazen ere. Katilukada bat tek izan zezakeen ondorioa usaindu ere egin gabe, ohetik altxa eta Le Corbusierren zerraldo-artean-freskoa zapalduz bezala pausatu zuen Ivyk lehen oina lurrean, ezkerre behar zuena derrigor, eta ondoren bigarrena, angelu zuzena osatuz maisuarekin.

Nagi baina pozik esnatu ohi zen lanerako. Pastelak apaintzea zuen Ivyk ogibide, baina 60ko hamarkadako Ingalaterran pastelak apaintzeak ez zuen dirurik ematen, eta kontent zen hormigoi aurrefabrikatuzko panelez eraikitako inurritegi hartan etxebizitza egokitu zitzaiola-eta. 18. pisua, 50 metro koadroko hego-mendebaldeko izkina argitsua, bista ederrak. Gerraosteko etxebizitza-krisia zela eta, untxien antzera ugaltu ziren gisa honetako etxe-orratzak Ingalaterra osoan zehar, hiri handietako aldirietan bereziki. Londres ekialdeko Newham auzoko Ronan Point dorrea ez zen, horrenbestez, salbuespena.

Eguneroko errutina goiztiarra: 05:00etan puntuan esnatu, izena nekez merezi duen korridore motzegia zeharkatu eta bi gaileta eta irratiairen konpainian edan ohi zuen Ivyk tea. Gas bidezko sua piztu, pospoloa ondoren, eta patuak patu, eztanda ozen batek egunerokotasuna hautsi zuen bat-batean Ronan Pointen.

Halakoetan gertatzen denez, maiz ikusten baitugu albistegietan, leherketak erro-tik erauzi zuen fatxada eta agerian geratu zen lotsagorritzeko moduko horma-paper koloretsua, jada libururik gabeko apal biluzia eta atea. Baina eztanda honek, ohiko gas-leherketa izanagatik, ohiz kanpoko ondorioak izan zituen, eta eraikinaren hego-mendebaldeko izkina oso osorik eraitsi zuen, 22 pisuetako lauzak lurrera erori baitziren bata bestearen atzetik, domino piezak horizontalki nola. Lotsagorritzeko moduko hogeita bi hor-

ma-paper koloretsu, libururik gabeko hogeita bi apal biluzi eta hogeita bi ate, auzo osoaren begi bistan.


Hamaika biktima utzi zituen leherketak. Hildakoak lau, hiru bizilagun eta okerreko lekutik pasieran zebilen oinezkoa; zaurituak mordoxka bat, egongela galdu bitartean atearen markoari gogor eutsi izanak salbatutako bizilaguna tartean.

Harry Louis Ronan zinegotzi ohia ere sar genezake kaltetuen taldean, gizagaixoa, ez baitu xamurra izan behar zure izena darman eraikina gisa horretara ikusteak. Baina kalteturik izan bazen, zentzu kontzeptualean esango dugu, hori Arkitektura Modernoa izan zen, haren sinesgarritasuna literalki gelditu baitzen txiki-txiki egina, lurrean barreiatua milaka puskatan. Txiki-txiki egina modu injustuan, esan beharra dago, lauza horizontal eta horma bertikalen arteko junturak egunkari-paperez betetzea,

hormigoiez beharrean, ez baitirudi *a priori* arkitektura modernoari aurpegiratu dakiokeen zerbait.

Edonola ere, papera, hormigoi eta injustiziak injustizia, Arkitektura Modernoaren gainbeheraren ikur bihurtu zen Ronan Point, Pruitt-Igoe estatubatuarraren baliokide ingelesa eta inflexio puntu bat gizarteak arkitekturaz zuen pertzepzioan. 1986an, leherketa gertatu eta hemezortzi urtera, eraitsi egin ziztuzten auzunea osatzen zuten bederatzi dorreak, eta lorategidun bi pisuko blokez ordezkatu arkitektura-korronte berrien izenean. Ziklo berria abian zen eta antzeko egin zuten Erresuma Batuko beste hainbat bazterretan ere.

Ivy Hodge, mirakuluz, onik atera zen leherketatik, bai Ivy bai eta bere gas bidezko sukaldetxoa ere, lasai asko eraman zuena gobernuak eman zion etxebizitza berrira. Bigarren pisu bat egokitu zitzaion bi solairuko eraikin postmoderno batean, eta gas bidezko sukaldetxoak leherketarik eragin bazuen ez zen hura aparatosoegia izango, ez baitzuen, ondorengo hamarkadek argi erakutsi bezala, Arkitektura Postmodernoaren etorkizun oparoa behar baino lehen zapuztu. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Beñat Zaldúa**

Aldaketaren aldeko ilusioaren arrastoen bila

Kanpaina ez zen duela astebete hasi Nafarroan. Roberto Jimenezek 2014ko otsailean Barcinari buruz botatako «edo badoa edo kanporatuko dugu» hura ezerezean gelditu zen egunean hasi zen. Norbaitek oraindik dudarik bazuen, egun horretan desagertu ziren: aldaketa ez da inoiz etorriko Nafarroara PSNren eskutik. Hori argituta, Podemosen agerpenak hilabete gutxiren barruan haize berriak ekarri eta PSNrik gabeko aldaketa posible dela sinesten hasi ziren nafar eragile nagusiak. Duela urtebete egindako Europako hauteskundearen emaitzek aldaketaren posibilitatea indartu zuten, erregimenaren indarrek eta aldaketaren aldekoek emaitza ia berdinak lortu ostean. Oilo-ipurdia jartzen zuen soilik pentsatzeak aldaketa posible zela, lehenengo aldiz azken bi hamarkadetan UPN gobernutik kanpo gelditu ahal zela, eta, are gehiago, historian lehen aldiz, aldaketa hori PSN-PSOErik gabe eman ahal zela. Beti zeharka begiratu behar diren inkestek aldaketaren posibilitatea indartu dute hilabete haue-tan guztietan. Ilusioa guztiz ulergarria zen.

Horrela iritsi gara egun hauetako kanpainara, edo behintzat hala uste zuen le-
rro hauek idazten dituenak. Batek ez daki etxeko berriak urrunetik segitzearen ajeak diren edo sentsazio orokor-tua den, baina azken hilabe-teetan hainbestetan aipatu-tako aldaketaren ilusioaren arrastorik ez dut ia topatu orain arte. Marketin politiko-an telebista eta sare sozialak jaun eta jabe diren garai ho-netan kanpaina formatu zaharrek ez dute gehiegi lagun-tzen, baina ez dut uste arazo larriena hori denik. Ilusioarekin edo ilusiorik gabe, kanpainak beti dira astu-nak (bi aste mezu berberak errepikatzen), hein handi ba-tean faltsuak (hauteskunde programak Olentzerori ida-tzitako eskutitzen modukoak izan ohi dira) eta, orokorrean, harri-kartoizkoak (argazkia atera eta bereha-la beste zereginetara pasatzeko prestatutako ekitaldi an-tzuak dira nagusi). Era berean, tartean desastzerik ez ba-da gertatzen, hauteskunde eztabaidek ia ezertarako balio ez dutela ez da inolako nobedadea. Ameriketako Estatu Batuetako politika fikzionatu eta idealizatua Nafarroako politika errealearekin alderatzea ariketa arriskutsua izan arren, “The West Wing of the White House” telesailak era-

kusten du eztabaida horietan egin daitekeen bakarra es-pektatibak gaintitzea edo zapuztea dela, eta orain arte nafarrok ikusi ahal izan ditugun bi eztabaidetan (Araizen eta Esparzaren artekoa lehenik eta zortzi hautagaien ar-tekoa gero) ez da sorpresarik egon. Bai, Araiz Esparza bai-no finago ibili zen, baina inork ez du aldatuko bere botoa eztabaida horiek ikusi eta gero.

Laburbilduz, jendea nekatuta eta kanpaina soberan da-goela dirudi zenbaitetan. Azkenengo urtean UPNren us-telkeria eta gehiegikeriak errepikatzea izan da Nafarroa-ko politikan kirol nagusia. Normala eta beharrezkoa. Guztiek jolastu dute, PSNtik EH Bildura, tartean dauden alderdi guztiak barne. Baina behin kanpaina hasita, de-nak jarraitzen du berdin. CAN, Navarra Arena, Osasuna, zirkuitua eta UPNren gainontzeko aldrebeskeriak dira al-daketaren aldeko argudio nagusiak. Tira, agian ez dira nagusiak, baina bai nagusitzen direnak. Eta gauzak ho-

UPNren kontra jotzeaz gain, ez legoke soberan aldaketaren aldeko indarrek proposamen bateraturen bat egitea. Alderdi bakoitzak bere itun lehentasunak argitu beharko lituzke horretarako

rrela izanik, normala da jendeari dena esanda dagoela iruditzea, jendeak kanpaina azkar pasa dadila nahi iza-tea, bozkatu eta beste gauza batekin sartzeko.

Esan daiteke, beraz, UPNren kontra jotzearekin ados daudela denak. Baina hortik aurrera? Zeintzuk izan be-har dira gobernu berri baten lehentasunak? Argi dago emaitzek baldintzatuko dutela erantzuna, baina ez lego-ke soberan aldaketaren aldeko indarrek proposamen ba-teraturen bat edo batzuk egitea, errazagoa baita ilusioa zerbaiten alde sortzea beste zerbaiten kontra eraikitzea baino. Baina jakina, horretarako alderdi bakoitzak bere lehentasunak eta akordioetara iristeko irizpideak argitu beharko lituzke. Laburbilduz, denek azaldu beharko luke-te zein pauso egiteko prest dauden datorren astean Nafa-rroak arnasa hartzeko ezinbestekoak dituen 26 diputatu horiek lortzeko. •

HAUTAGAIK ERAIKIZ

Komunikazioaren eraginkortasuna lupaz aztertuta

Udal eta foru hauteskundee-tarako kanpaina bete-betean gaude. Plazetan gozoki, lore eta

eskuorriak banatzen dituzte gure arretaren truke, eta frontoietan mitinek hartu dute piloten lekua. Erabakitze eskubidea, aurkarien kudeaketaren gaineko kritikak edota krisia titularretara iristen dira etengabe, herritarrek aspertzeraio kasik. Gure herri sobera politizatu honetan boz gehientsuenak aurrez erabakita daudela pentsatzen dugu maiz, ikerketek diotenaren arabera, baina, gero eta gehiago dira euren erabakiaren norabidea azken egun hauetan ikusi eta entzuten dutenaren arabera defintzen dutenak.

GAUR8k hautagaietan jarri nahi izan du lupa, bi asteko lasterketa honetan, oholtzara igo ala kamera aurrean ipini aurretik egiten duten edo ez duten horretan erreparatu nahi izan dugu. Nerea Redondo Otamendirekin elkartu gara horretarako. «Formakuntza erraztatzailea» dela dio berak, baina komunikazioan aditua dela ere esan genezake. *Coaching* saioak eskaintzen ditu, bai norbanakoak eta baita taldekoak ere. Komunikazioaren gako eta sekretuez aritu zaigu, eta jende aurrean hizketan aritu behar duen edonorentzat baliagarriak diren hainbat teknika eta gomendio ere eman dizkigu.

Gaia sakondu aurretik, gure uste sendoenak ere kolokan jarri dituen infografia atera digu (lerroon ondoan dago ikusgai). Edozein komunikazio ekintzatan hiru kanalen bidez komunikatzen garela ekarri du gogora Redondok. Edukia, ahotsa eta gorputza dira kanal horiek eta komunikazioaren eraginkortasunean duten garrantzia honela banatzen da: edukia %7; ahotsa %38 eta gorputza %55. Komunikazioaren gorpila deritzo horri, eta, ikerketen arabera, gorpilaren orekak zehaztuko du komunikazioaren eraginkortasuna.

Uste genuena baina garrantzi eskasagoa duen arren, edukia beti prestatu behar dela sosten-

 **POLITIKA** / oihana.llorente@gaur8.info

Hauteskunde kanpaina betean, arreta mezueta ipini orde, hautagaien keinu, begirada eta hizketaldiei erreparatu diegu. Oholtzara igo orduko egiten duten edo ez duten horretan jarri dugu lupa, izan ere, komunikazioa edukia baina askoz gehiago dela ikasi dugu Nerea Redondo «formakuntza erreztatzailearen» eskutik.

gatu du Redondok: «Oso garrantzitsua da edukia prestatzea, zer esan nahi dugun dakigunean, eduki hori modu batean ala bestean komunikatu nahi dugun erabaki dezakegu, mezua eraginkorragoa izan dadin».

Galdera deserosoak jarri ditu, baina, Redondok mahaiaren bueltan. «Zer da gehien prestatzen duguna?». Noski, gaurgaurkoz edukia da galdera horren erantzuna. «Eta zenbat denbora eskaintzen diogu gurpilaren gainerako %93ari?». Redondok berak eman du erantzuna: «Askotan, ezertxo ere ez».

PRAKTIKATU ETA PRAKTIKATUZ, IKASI

Komunikazioaren gorpila eza-gutzeak beldur eszenikoaren sentsazioa areagotzea ekar badezake ere, Redondok argi du, bizitzako beste arlo guztietan bezala, komunikatzen ere ikasten dela. Horregatik, ikasketa prozesuaren lehen urratsa kontzientzia hartzea dela azaldu du. Kirol probekin egin du alderaketa, eta, kirol lehiaketetara entrenatu gabe ez goazen bezala, hitzaldi, mahai-inguru edo dena delakora joan aurretik entseatu behar dela nabarmendu du. «Ispilu aurrean, gure burua grabatuz ala gure ingurukoekin hizketaldia partekatuz treba gaitzek. Hor ikusiko dugu zer egiten dugun ondo eta zer hobe dezakegun», dio. Jakin badaki gure burua argazki ala filmetan ikustea zein gogorra den, baina epaiketarak alboratuz gure buruak zuzenean ikustea hobekuntza perspektiba batean oso baliagarria dela defendatzen du.

Komunikazioaren sekretuen gaineko bibliografia zabala dagoen arren, autoa gidatzen ikasteko esperientziaren modukoa omen da komunikazioarena. Enbragea, frenoala azeleragailua non dauden mila aldiz irakurri eta azaldu arren, gogora ekarri duen bezala, benetan praktikatuz jabetzen gara horretaz. Lehen saiakeran ez ernegatzeko, hasierako sentsazioa ere autoeskolako lehen eguneko bera dela dio Redondok. «Eskuak eta hankak falta zaizkizu autoeskolako lehen egunean. Kontzienteki komunikatzen hasten garenean ere eskuekin zer egin, begirada nora zuzendu eta tonua nola erabili erabakitzen erotzen gara, baina ikasten da», dio animatu nahian. Gaiaren gaineko liburuak irakurtzea eta trebakuntza ikastaroak jasotzea garrantzitsua dela argi duen arren, jakin-

tza horiek apalean ez uzteko deia egin du.

Komunikazioaren parean entzuketa kokatu du eta entzuketa maila desberdinak daudela azaldu du Redondok: bakarrizketa maila, azaleko entzuketa eta sakona, hain zuzen ere.


Lehen maila igogailuko elkarritzeten parekoa dela defendatu du. Gure jendarte, isiltasunak urduritzen gaituen jakitun da Redondo eta hura betetzearen edozer esaten dugula uste du, parekoak galdetu digunari apenas erreparatu gabe.

Azaleko entzuketa da Redondoren arabera, gehienok gure egunerokotasunean egiten duguna. Hau da, itxuraz entzun bai, baina benetan horretara jarri gabe. «Aurreiritziz beteta gaude eta parekoak zer esango digun aurreikusten dugu; hizketakideak bukatu aurretik mozteko ohitura dugu, eta, azalpena bukatu arte isilik gelditzen bagara ere, entzuten egon orde, zer eta nola erantzun pentsatzen gaude. Erabilgarria izan daitekeen informazio asko galtzen da horrela», nabarmendu du.

Entzuketa sakona da hirugarren maila eta komunikazio eraginkor baten mesedetan maila hau da interesgarriena. Komunikatu gorpil osoarekin komunikatzen bagara, entzun ere gorpil osoarekin egin behar dela nabarmendu du donostiarrak; ahotsak eta gorpuzkerak ere zeresana dutela gogora ekarriz, alegia. «Entzuketa aukera desberdinak daudela argi edukitzea da kontua, eta, guretzako garrantzitsuak diren une ala harreman horietan, entzuketa sakonaren alde egin behar dela gogoratu behar dugu. Kontzientzia hartu, bonbilla gorria piztu eta sakon entzun. Itxaron azalpena bukatu arte, ez utzi lekurik aurreiritziei, arreta jarri gorpuzkera eta tonuan...», dio.

Gure komunikazioa hobetzeko teknika mordoa eman dizkigu Redondok, baina, edozein teknika martxan jarri aurretik segurtasuna sentitzean jarri du azpimarra. Entrenamenduaren bidez lasaitasuna eskuratzen dela nabarmendu arren, arnasketan arreta jartzea gomendatu du. «Urduri

Komunikazioaren gorpila



Iturria: Albert Mehrabian, "Noverbal Communication"

GAUR8



gaudela ohartuz gero, egin arnas-keta ariketak lasaitzeko», gomen-datu du. «Beti berdina eginez gero, emaitza bera izango da. Gauzak desberdinak eginez gero, emaitzak ere desberdinak izango dira». Hitz horiekin animatu ohi ditu Redondok ikasleak bere ikas-taroetan erakusten dituen teknikak praktikan ipintzera, eta berdina esanez eman digu guri ere komunikazio tekniken berri.

GORPUTZ TEKNIKAK

Gure gorputza kalakaria da. Nahita edo nahigabe zer edo zer esaten du, eta esaten duen edo esaten ez duen horrek, gainera, garrantzi izugarria du komunikazioan. Zehazki, aurrez aipatutako komunikazioaren gurpilaren arabera, %55eko garrantzia. Aspaldikoa da gorputz komunikazioaren gaineko ikerketa, adibide bat aipatzearren, 1960an, Kennedy eta Nixonen arteko debatan, irratiz entzun zuten

Hauteskunde kanpainen zehar askotarikoak dira alderdiek bozak eskuratzeko egiten dituzten ekitaldiak.

JUANAN RUIZ | ARGAZKI PRESS

gehienek Nixon eman zuten garaile; debatea telebistaren bitartez ikusi zutenek, berriz, Kennedy jo zuten garaile. Eztabaida horretan, beraz, gorputz hizkuntza funtsezkoa izan zen balantza batera edo bestera joan zedin.

Ahozko hizkuntza ikasten den moduan, gorputz hizkuntza ere ikas daiteke. Horren adibide dira goi mailako politikari askoren *coaching* entrenatzaile edo aholkulari pertsonalak, edozein

Zer da gehien prestatzen duguna? Gaur-gaurkoz edukia. Eta zenbat denbora eskaintzen diogu gurpilaren gainerako %93ari? Redondok berak eman du erantzuna: «Askotan, ezertxo ere ez»

«Beti berdina eginez gero, emaitza bera izango da. Gauza desberdinak eginez gero, emaitzak ere desberdinak izango dira». Hitz horiekin animatzen ditu ikasleak teknikok erabiltzera

eztabaida edo agerraldiren aitzinean zer gorputz keinu, mugimendu... noiz eta nola egin erakusten dizkietenak. Guri Nerea Redondok erakutsi dizkigu. Eskuen komunikazioarekin hasi zaigu. Hitz egiterako orduan eskuak erabili behar ditugula argi dugu guztiok, baina, kontuz, eskuak asko mugitzea gutxi mugitzea bezain kaltegarri izan daitekeelako; izan ere, neurrigabeko mugimenduak komunikazioa zikindu eta arreta eragozten du.

Hasteko, eskuak sostengu moduan eta kontzienteki erabili behar ditugula aholkatu digu Redondok. «Eskuak beti ditugu soinean, ez, ordea, lasaitasuna eman bai, baina komunikazioa zikintzen duten boligrafo ala paperak. Eskuek egonkortasuna ematen dute, erabili beraz!», dio argi. Eserita gaudenean, hasteko, eskuak izter gainean jartzea aholkatu du, mahai baten bueltan ala atril baten aurrean gau-

denean, aldiz, haren gainean sostengatzeko. «Hori da eskuen abiapuntua eta postura horrek komunikatzeko jarrera dakar; hortik altxatuko ditugu, noski, baina, gaiez aldatzerakoan, deskantsatzerakoan edo arnasterakoan beti itzuliko dira leku bereira, hala, eskuak kontzienteki erabiliko ditugu», azaldu du.

Begirada ere zaindu beharrekoa da. Hizlariak oro har lehen lerroetan ala ezagunengan jartzen dute begirada, eta hori nahikoa ez delakoan da Redondo. Haren aburuz, ahal den neurrian entzule guztiei begiratzeko ahalegina egin behar da, nahiz eta galderak beti zonalde beretik etorri. Izan ere, hizlariaren arreta gune batean zentratuz gero, beste entzuleek arreta galtzeko arriskua dute.

Edozein hizketaldi egin aurretik entseatzea gomendatzen du Redondok, agertokira hurbildu eta ostean begirada pausatuko



duzun hiruzpalau puntu hartzeko. «Hizlariak begiratzen zaitue-
nean garrantzitsua sentitzen za-
ra, ekitaldiaren parte, eta, beraz,
arreta mantentzeko ahalegin
handiagoa egiten du entzuleak»,
dio.

Entzuleak parte hartzaile egi-
teko beste teknika bat euren ize-
nez deitzea da. «Elkarrizketa-
tzailearen edo galdera egin
dizun horren izena baldin badu-
zu, erabili, deitu bere izenez. Eta
ez badakizu, galdetu, horrek ere
gertutasuna erakusten du», dio
gomendio gisa.

Gorpuzkera ere aldatu behar
dela uste du Redondok: «Beti zu-
tik ala beti eserita? Erabili! Zutitu
arreta mantentzeko, edukiari ga-
rrantzia emateko, zerbait azpi-
marratzeko...». Agertokiak moda-
modan daudela ongi daki Redon-
dok, baina entzuleak eserita dau-
den bitartean hizlaria zutik ari-
tzeak klase magistral baten antza
hartzen duela ekarri du gogora,
«eta horrek parez parekotasun
eta hurbiltasunarekin zerikusi
gutxi du», ohartarazi du.

Ahotsak ere berebiziko ga-
rrantzia du komunikazio min-
tzatuan, beraz, hizketaldian ze-
har tonu baxu ala ozenagoak
eta hizketaldi azkarrago eta
mantsoagoak erabiltzeko ahol-
kua eman du.

Edukiari dagokionez, hartzai-
learen arabera moldatu behar
dela uste du Redondok, ez baita

berdina zahar egoitza batean ala
gaztetxe batean aritzea. Hartzai-
learen araberrako hizkuntza era-
biltzearen alde ere agertu da.

Era berean, metaforek eta
ipuinak duten garrantzia ekarri
du gogora. «Edukiarekiko moz-
keta eragiteaz gain, entzuleak
askoz hobeto gogoratuko ditu
halakoak eta edukiak ulergarria-
go egingo ditugu», azaldu du.
Hedatu nahi duten edukia ipuin
formatuan hedatzea zail ikusten
duten horientzat, sormena gara-
tzeko eta metafora eta ipuinak
osatzeko hamaika ikastaro dau-
dela gogorarazi du donostiarrak.

Ipuinen antzera, bertsoek eta
abestiek, ondo erabiliz gero,
ekar dezaketen efektua nabar-
mendu nahi izan du, eta hautes-
kunde kanpaina betean gaude-
la-eta, politikariak maila batean
aktoreak ere badirela gogora
ekarritz halakoak praktikan jar-
tzeko desafioa egin die.

**«Galdera baten aurrean apur batez isilik
geratzeak pentsatzen ari zarela frogatzen du.
Segituan erantzunda, galdera dena delakoa
izanda berbera erantzungo zenukeela dirudi»**

**Teknikek komunikazioa errazten dute eta
horiek ezagutzea eta bizkar zorroan eramatea
garrantzitsua da. Baina teknika bakoitza
norberaren estilora eramatea da giltzarria**

Nerea Redondo,
«formakuntza
erraztatzailea» da eta
«coaching» ikastaroak
eskaintzen ditu, bai
norbanakoak eta baita
taldekoak ere.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Edozein lekura goazela, komu-
nikatzeko baldintzak gure alde
jartzea hil ala bizikoa dela defen-
datu du Redondok. «Joan baino
lehen, jakin nora zoazten. Ez da
berdina ekitaldi, debate ala ma-
hai-inguru bat, eta ezta zahar
egoitza, telebista ala areto handi
bat», ohartarazi du. Nora goazen
jakiteaz gainera, agertokia nola-
koa izango den ezagutu behar
dela uste du. «Papera eraman be-
har baduzu, non utzi baduzula
ziurtatu; taburete gainean eseri-
ta hitz egin behar baduzu, saiatu
eroso egoten, lurrera iristen za-
rela frogatu; gonarekin bazoaz,
eroso zaudela ziurtatu...», dio.

ESTILOARI EUTSI ETA EROSO SENTITU

Arropa eta itxura ere zaindu be-
harreko kontuak dira. Redondo-
ren arabera, erosotasunak izan
behar du helburua, norbera bere
buruarekin gustura sentitzea,
eta, beraz, estreinatu ez dugun
ezer ez erabiltzeko gomendioa
egin du: «Zapata ala arropa be-
rriekin baldintzatuta sentitu
ahal zara; zapatek min egin de-
zakete, eta, arropak, adibidez,
izerdiarazi... Arropak ezin du
traba bat izan, zure alde jarri be-
har duzu».

Janzkera eta estiloari dagokio-
nez, Redondoren arabera, norbe-
rak bere estiloa mantendu behar
du; «noski, ez gara berdin janz-
ten lan elkarrizketa batera bago-
az ala lagunekin afaltzera bago-
az, baina, era batean edo
bestean, norberaren estiloa zain-
du behar da». Hala ere, aholku
zuzena eman die betaurrekoak
erabiltzen dituzten horiei: «Be-
taurrekoak estu eraman! Eskuak
etengabe aurpegiaren bueltan
edukitzeak komunikazioa zikin-
du eta segurtasun falta erakus-
ten du-eta!».

Gure hartzaileekin bat egitea,
berdintzea, komunikaziorako
baldintza egokiak lortzea ga-
rrantzitsua da eta hori Rapport
teknikaren bidez eskuratzen da.
«Konfrontazioa gaingitu eta pa-
rez parekotasuna eskuratzea ga-
rrantzitsua da. Norbait triste ba-
dago, kezkak konpartituz,
enpatia erakutsiz mugiaraziko
dugu», azaldu du.

Aurrez aipatu bezala, entzuke-
ta ere bada komunikazioaren

zati garrantzitsua, eta, beraz, ha-
ri ere arreta jarri behar zaiola
oso argi du Redondok. Elkarriz-
ketaren batean ala galderak dau-
denean, sakon entzun behar de-
la defendatu du, baina baita ez
daudenean ere; «entzuleengan
arreta ipini, aspertuta badaude
edo euria hasi badu, azkar buka-
tu», dio.

Isiltasunari beldurra diogun
arren, komunikazio ikuspegitik
oso boteretsua dela defendatu
du. «Galdera baten aurrean apur
batez isilik geratzeak pentsatzen
ari zarela frogatzen du, eta hori
seinale ona da. Pentsatu gabe
erantzuten baduzu, galdera de-
na delakoa izanda berbera eran-
tzungo zenukeela dirudi», dio.


Teknikek garrantzia duten
arren, praktikatzea da, Redondo-
ren arabera, gakoa. «Hizketaldia
entseatuz gero, ulertzen ez di-
ren edo trabatzen zaizkizun hi-
tzak daudela ohartu eta aldatze-
ko aukera duzu», ekarri du
gogora. Makuluak ere ohikoak
dira gure hizketaldietan. Maku-
lu bakoitzaren atzean segurtas-
un falta dagoela ohartarazi du,
eta, horien ordezt, arnasarekin
jolastea edota bestelako esamol-
deak erabiltzea gomendatzen
du. Era berean, praktikatzu gero,
denbora ere neur daiteke. «Seku-
lako edukia prestatu baina entse-
atzen ez bada, agian ez da dena
azaltzeko astirik. Jenderen arreta
ere mantendu behar da, eta, prak-
tikatzu, jendearen arreta galtzea
ekidin daiteke», azaldu du.

Teknikek komunikazioa erraz-
ten dute, horiek ezagutzea eta
bizkar zorroan eramatea garran-
tzitsua da, baina teknika bakoit-
za norberaren estilora eramate-
ra da, Redondoren arabera,
giltzarria. «Tresnak hor daude,
ez ditugu zertan etengabe erabi-
li behar, baina, edukia prestatze-
rakoan, teknika horiekin gogo-
ratu eta helburuen arabera
erabili behar ditugu. Zuk zeuk
hori kontrolatzeak, gainera, se-
gurtasuna ematen du», nabar-
mendu du Redondok.


Bere ikastaroen ostean, harri-
txoak oparitzen ditu Redondok,
gainean eraman eta gure baliabideekin gogorarazteko harriak.
GAUR8 berarentzat ere harri-
txoa ekarri du opari.

BOTEREA eta bere formak

DENIS ITXASO eta bere Road Movieak



Gasteizen herriaren aldeko konpromezu hartzeak (norbera bere mailan noski)



Edozein etxetako dalduntze praktikak



Ainara
Azpiazu
AXPI

iRRITZIA:

«ZAINDU ZURE HITZAK»

Mikroerasoei erantzun eta aniztasun sexuala aldarrikatzeko argazki proiektua

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Zenbat aldiz aditu ote dugun «gay izatea aukera bat da» edo «homosexualak promiskuoak dira». Komentario arinak dirudite, baina kalte handia egiten dute, «Zaindu zure hitzak» lagunarteko proiektuaren egileek ohartarazi dutenez. Homofobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira plazaratu dute lana.

Arrazismoaren kontrako Interneteko kanpaina batean du sorburua “Zaindu zure hitzak” proiektuak. AEBetako lan horretan, kartel banari eusten zieten azal kolore desberdinetako lagunak. Bakoitzak bizitakoan oinarritutako estereotipoak zituzten idatzita. Adibidez, «ongi ikusten duzu begi horiekin?» galdera zerraman txinatar batek. Behin bai-

no gehiagotan aditu behar izan duen galdera gogorra.

LGBT (Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexual) komunitatearen inguruko komentario negatiboe-ekin bertsio desberdin bat egitea bururatu zitzaion Leonard Martin londrestarrari, oraindik «ia egunero» entzuten dituzte-lako esaldi mingarriak. AEBetako kanpainako estereotipoek ez zeramaten erantzunik eta proiektu berrian horiek sartzea interesgarria izanen zela pen-

tsatu zuen, normalean ez ditugulako aditzen eta ezagutzen.

Lagunekin batera gauzatu zuen ideia Martinek, Donostian, amaren etxean. Bederatzi pertsona bildu ziren otsailaren lehen etxeko salan, Lander Rezola argazkilariarekin. Bakoitzari lau argazki atera zizkion honek, bat estereotipoa idatzita zeraman kartelarekin eta bertzea hari emandako erantzunarekin, gaztelaniaz eta euskaraz. Ingeleseko azpigituluak jarri dizkiete, baita serbierara itzuli ere (bertako lagun bati esker), nazioartera zabaltzeko. Parte-hartzaileetako batek, Mattin Garikanok, erran bezala, paperezko txalupa bat jaurti dute ibaira. Harrera ona izaten ari da eta bide oparoa eginenez portu ugaritara irits daiteke. Zabalik daude aukerak.

ARMAIRUTIK ATERATZEA ZAILDU

Adibidez, lagun batek gustatzen ez zaion honako komentarioa aukeratu zuen: «Gay izatea aukera bat da». Eta hala erantzun zion: «Nik ez dut gay izatea au-

keratu, horrela izateko zortea besterik ez dut izan».

Bi txandatan egin zuten lan, goizez eta arratsalde, laguntasuna oinarri pasta eta croissant batzuen inguruan esperientziak eta ideiak partekatuz. Kolektiboaren parte direnek eta ez direnek hartu zuten parte. Hagitz gustura gelditu ziren eta hagitz produktiboa izan zen.

Proiektuan jaso dituzten bederatzi estereotipoak (eta baliabide faltagatik kanpoan utzi arren sartu nahiko lituzketen guztiak) gehienetan erabat falsuak direla azaldu dute. «Ezjakintasunean oinarritzen dira, eta kolektiboaren zein gure bizi-moduaren imajinario oker bat sortzen dute». Mikroeraso deitzen diete. «Beldurra sortzen dute eta lagun askoren autoestimua kaltetzen dute, armairutik irteteko trantsizioa zailduz».


Alde batetik, mikroeraso horiei erantzutea dute helburu eta, bertetik, aniztasun sexuala aldarrikatzeko. Eskerrak eman dizkie Martinek ekarpenak egin di-

Argazki bikote bat: lehenbizikoan estereotipoa agertzen da eta bigarrean hari emandako erantzuna.
Lander REZOLA / ZAINDU ZURE HITZAK



tuzten lagun guztiei eta, nola ez, argazkietan aurpegia emateko prest egon direnei. «Jendeari kosta egiten zaio agertzea», erran dute Martinek eta Garikanok aho batez. «Eta hori jendar-tean gertatzen denaren isla da», erantsi du bigarrenak. «Aldaketa nahi dugu baina gauzatzeko orduan bigarren lerroan geratzen gara. Beharrezkoa da aurpegiak eta hitzak jartzea, baina zeinek egiten du?».


Errealitate hau paperera eta esku aunitzetara eraman nahiak batu ditu lanaren parte hartzaile guztiak, baita hitzak zaintzearen garrantziaz ohartarazi nahiak ere. Erremintak ematen dituzte estereotipoei aurre egiteko, hitzei hitzekin erantzunez. «Denaren oinarria hezkuntza» dela konbentzituta, beren alea jarri dute data seinalatu batean. Bihar, ez aspaldi, 1990eko maiatzaren 17an, homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik kendu zutela ospatuko dute, transexualitatea oraindik ez dutela bertatik ezabatu salatuz.



Bertze bi argazki bikote, Leonard Martinen ideia gauzatuz lagunartean eginak. Guztira bederatzi bikotek osatzen dute proiektua.
Lander REZOLA /
ZAINDU ZURE HITZAK



Leonard Martin
londrestarra, egitasmoaren
bultzatzailea, aukeratutako
estereotipoa eta hari
emandako erantzuna
erakusten.
Lander REZOLA /
ZAINDU ZURE HITZAK



LEONARD MARTIN ETA MATTIN GARIKANO

SUSTATZAILEA ETA PARTE HARTZAILEA

«Homofobia existitzen da, gradu oso altuetan eta biolentoetan, eta toki publikoan, matxismoa eta arrazismoa bezala»

Mattin Garikanok mutikotatik sufritu du *bulling*-a, ez delako inoiz “arauen barrenean” sartu. Beti izan du atzetik *maricón*, *miriquita*... eta halakoak erraten zizkion itzala. Orain 27 urte ditu eta oraindik ere itzal hori segika du, bere lagun aunitzek bezala, mutilak zein neskak.

«Gau batean jai batetik atera eta mutil batekin nindoala, mutil batek bizikletan aurreratu eta ‘*maricón*’ oihukatu zigun. Momentuan min egin zidan? Bada, ez, ez zidan egin. Baina beharrezkoa da halakoak entzutea?».

«Jada ezkon gaitezke, adoptatu dezakegu, baina nire egunak 24 ordu ditu, eta, momentu batzuetan, klabeak diren momentu batzuetan, gorrotozko hitzak entzun behar ditut», adierazi du.

Nazioarteko Osasun Erakundearen Asanblada Orokorrak homosexualitatea gaixotasun psikologikoen zerrendatik ezabatu zuen duela 25 urte, 1990eko maiatzaren 17an. Ez da hainbertze denbora pasa, adibidez, elkarrizketatutako bi lagunak jaio zirenean gaixotzat hartzen zituzten.

Norbera kaltetu gabe

Eurentzat, biharkoa egun inportantea da, «inportantea delako jakitea bakoitza libre dela nahi duena egiteko, beste inor kaltetu gabe... ezta bere burua ere».

Armairuarekin hori gertatzen dela diote. Batzuk hor gelditzen dira, errazagoa delakoan “bizitza normala bizitzea”. Mattinen iritziz, kontziente izan behar dugu non bizi garen, kontuan izan behar ditugu inguruko egoera eta arauak, baina batez ere indartsu egiten gaituena gure nahietan sinestea da. Hau da, «gay banaiz gay naiz».

Guztiz bat dator Leonard Martin laguna. Londresekoa da eta 34 urte ditu. «Hiri handia eta anitza izanda, arazorik ez dagoela pentsatuko duzue, baina badaude. Nire kasuan, ez nuen ‘lumarik’ eta ez ziren nirekin sartzen, baina bazen lege bat, gero kendu egin zutena, ikasgeletan homosexualitateaz hitz egitea debekatzen zuena. Horrek tabua sortu eta *bulling* asko eragin zuen. Bazen ni baino urte bat gehiago zuen mutil bat, androginoagoa, ‘luma’ gehiago zuen, eta sekulako jipoiak jaso zituen. Nik, 14-15 urterekin, beldur handia pasa nuen».

Zeinen mantso

Bitxia da zeinen mantso pasa daitezkeen gauza batzuk. Errate baterako, urte aunitz igaro dira Mattin Garikano umetan eta gaztetxotan bizitakoari buelta ematen hasi den arte. Bizi-bizi oroitzen ditu xehetasunak eta hitzak.

Aitortu duenez, oraindik ere baditu hurbilenekoei ere

kontatu gabe barrenean gordetzen dituen kontu mingarriak. Bi lagunak bat etorri dira gorrotozko ekintza horiek eta hitzek ere autoestimuan eragina izan dezaketela agertzean, bereziki gaztetxoa zarenean eta zure identitatea osatzen ari zarenean.

Dardo bat denoi

Dardo bat jaurti dute gu guztion pentsamenduetara, jendarteak, orokorrean, moral bikoitza duela eta hipokresiaz jokatzeko duela salatuz. Errate baterako, ez dira gutxi «homosexualitatea ona da besteen etxean gertatzen denean» diotenak.

“Zaindu zure hitzak” argazki proiektuaren harira sortutako solasaldian aipatu duten bertze ideia bat izan da «etsaia homofoboak» direla pentsatzen dutela, baina homosexualak beraiek ere barneratuta duten homofobia ere kontuan izan behar dela.

Azaldu dutenez, batzuek bizitzen ari direna zerbait txarra dela uste dute. «Denok denetik dugula iruditzen zait, eta, beraz, nik ere badut homofobotik, arrazismotik...», adierazi du Garikanok.

Erasoak Madril erdian

Argazki proiektuan parte hartu duen lagun baten seme txikiena bisexuala da, eta androginoa, kontatu du Leonard Martinek. Harriak bota dizkiote. Madril erdian jendea erietxera eraman duten erasoak gertatu ziren iaz. «Homofobia existitzen da eta gradu oso altuetan. Gradu oso biolentoetan eta toki publikoan, matxismoa eta arrazismoa bezala. Eta ona da detektatzen jakitea eta lan egitea. Ekintzak egitea, erantzunak bilatzea eta batez ere gauzak onerako aldatzen ahalegintzea. Horretarako lan izugarria egin behar da, aliatuak bilatuz», diote bi gazteek aho batez.

Horretarako hagitx baliagarri ikusten dute Internet, nahiz eta, eurek giza eskubideen alde sarean lan egiten duten bezala, kontrako indarra egiten dutenek ere tresna berak baliatzen dituzten. Edozein modutan, erasoei aurre egiteko erreminta aunitz dauden garaian bizi garelako pentsatzen dute.

Sarearen bidez estereotipoak hausteko argazkiak munduan barna zabaltzen hasi dira dituzten kontaktuen laguntzaz. Adibidez, irudiekin azaldu nahi dute LGBT (Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexual) komunitateak kolektibo gisa borroka egiten badu ere, bertan denetik dagoela, toki guztietan bezala: «Aberatsak gara aniztasunean».

Ama bat eta aita bat ez, maitasuna

«Ume batek aita bat eta ama bat behar ditu», dio argazkietako batean lagun batek eusten duen kartelak. Hona erantzuna: «Ume batek maitasuna behar du».

Lagun bakoitzak estereotipo bat aukeratu du, bere bizian sarri aditu behar izan duena edo

arrazoi batengatik edo bertzeagatik ukitzen duena eta aldatu nahi duena. Emandako erantzunak ere pertsonalak dira, baina lagunarteko proiektua da eta denen artean ideiak partekatu eta terminoak zaindu dituzte.

Bertze kartel batek hala dio: «Ez dut ulertzen zergatik daukazu homosexualak zaretela agertzeko behar hori». Eta erantzuna: «Ez da homosexualak garelako esateko gogoia, duintasunez azaltzeko beharra baizik».

Belgradera

Guatemalara bidali dituzte argazkiak. Belgradera ere iritsi dira, toki adierazgarria, arriskutsua izan daitekeen lekura. «1990ean Harrotasunaren Eguna egiten saiatu ziren eta odol putzu batean bukatu zen ahalegina. 2010ean gauza bera. Joan den urtean berriro ahalegindu ziren eta ongi ateratu zen», esplikatu du Leonardek.

Hango aktibistentzat hagitx garrantzitsua izan zen argazkiak jasotzea eta beren asmoa da Harrotasunaren Eguna iristear dela egunero argazki bikote bana jartzea webgunean eta eguna ailegatzean denak zintzilikatzea.

Egitasmoak Gehituen web orrialdean eta aldizkarian ere izanen du lekua.

Pertsona legalak ala ilegalak

Herrialdearen arabera legalak ala ilegalak dira gay, lesbiana eta bisexualak. Errusian, “ez dira existitzen”. Iranen heriotza zigorra jaso dezakete. Eta, kilometro gutxi batzuk gorabehera, ezkon daitezke ala ez. Adibidez, Euskal Herrian, Bidasoaren alde batean edo bertzean bizi ezkontzeko eskubidea zeneukan ala ez. 2012an aldatu zen hori, Estatu frantsesak homosexualen arteko ezkontzak baimendu zituenean. Elkarriketatuek azpimarratu dute izaera erlijiosotik aparte, eskubide kontua dela ezkondu ahal izatea.

Leonardek eta Mattinek ikusten dute azken urteetan «aurrerapauso dezente» eman direla baina jendea hor gelditu dela, urrats gehiago egin gabe. Nabarmendu dute ez direla kontu pribatuak, giza eskubideak baizik. «Asko dago aldatzeko eta beharrezkoa da ikusgarri izatea», defendatu dute.

Urraketa, kolpetik edo pixkanaka

Homofobia sistema batek elikatzen duela eta horretatik bizi dela azpimarratu dute. «Ez da jipoia bakarrik. Pixkanaka-pixkanaka desgastea sortzen du. Giza eskubideak urratzeko bi modu daude, kolpetik edo gutxika-gutxika. Eta gutxika-gutxika osasunarentzat oso txarrak diren egoerak sor daitezke».

Horrekin erran nahi dute gure hitzek pertsonak markatzen dituztela. «Sartutako arantzak bezala dira. Ni markatu egin naute –onartu du Mattinek–, txarrerako eta onerako».

«Hori da, onerako ere bai, besteak beste horregatik zabilta orain aktibista», jarraitu du lagunak.

«Nakba» gehiagorik ez

Koldo Sagasti

A tzo zorigaizto-ko urteurrena gogoratu zuten palestinarrek, 1948ko maiatzaren 15ean mugimendu sionistak, aldebakarrez, Israelgo Estatuak aldarrikatu zutenekoa. Egun hartan abiatu zen palestinarren hondamendia, erbeste-geroztik, egunez egun eta oldarraldiz oldarraldi, etengabe-koa izan da eremu horretan bizi zirenen garbiketa etnikoa. 67 urte geroago errefuxiatuen kopurua biderkatu egin da, milioi eskas bat izatetik ia sei milioira; Palestinaren eremua zegokien lur azalaren %10era murriztu da; eta ur baliabideak, azpiegitura ekonomikoak, mugak eta itsasorako irteerak okupatzaileek kudeatzen dituzte. Egoera desorekatu eta bidegabe horretan urrats bat baino ez zaio geratzen Israeli duela zazpi hamarkada abiatutako bide orriari legalitate bermea emateko: nazioarteko komunitatearen onespina.

Azkenaldian, bolo-bolo dabil nazioartean Palestinako Estatuaren diskurtsoa. Ezker instituzionaleko alderdiek ere bere egin dute palestinarrek gaur egungo eremu eta baldintzetan estatua sortu beharrraren aldarrikapena (baita ezker abertzaleak ere). Baina ez al litzateke hori egungo egoerari zilegitasun bermea ematea? Balizko estatua palestinar zatikatua onartzeak, ezinbestean, Israelek urte hauetan guztietan burututako okupazioa ontzat hartzea ekarriko luke; eta bideraezina egingo luke nazioarteko legediak errefuxiatuei onartzen dien jaioterrietara bueltatzeko eskubidea. Baina, bereziki kezagarria dena: borondate onez estatua palestinarra aldarrikatzen duten horiek nor dira palestinarren galtzetan sartzeko? Palestinako herria burujabea izango bada, erabaki dezatela eurek nola antolatu euren gizartea, eta gu kezka gaitzen gutxieneko giza eskubideak errespeta daitezen: okupazioaren amaiera, errefuxiatuen itzulera eta eskubide berdintasuna. •



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Geure buruei galdetu genienekoa

Neska-mutil kuadrilla bina naka doa eskolara bidean Urليا hezitzailearen atzetik. Irteeraren bate-tik bueltan datoz, antza, hamar bat urte inguru izango dituzten gaztetxoak. Urrutira ulertezina den leloa dakarte, gerturatu ahala ulertzen dena: «Gora España, Gora España» oihuka doaz. Urليا aurrean, bere pausoan mutu.

Tabernako terrazan kafea hartzen ari da Sandia hezitzailea, Urliaren hezigu-nearen alboko eskolan lan egiten du. Haren aurretik pasatzerakoan, Urliak zerbait esan die bere ikasleei oihukatzen ari zirenari buruz. Gero, norberak berean jarraitu du: ikasleak beren leloan, Urliak bere pausoan eta Sandiak kafea hartzen.

Pasadizoa Gipuzkoako herri euskaldun batean gertatu zen joan den udaberriko eguerdi batean. Herri horretan neska-mutil guztiek D ereduan ikasten dute, eta herritarren euskararen ezagutza eta erabilera altua da. Ikasle gehienetsuenek euskara dakarte etxetik. Egoera soziolinguistiko aparta, beraz, Euskal Herriko herri gehienetako egoeraren ondoan euskararen oasia, ia.

Sandia erretiroa hartzeko bezperetan den lankidea da. Bizi guztia hezkuntza munduan ibilia: garai zailak eta ez oso gozoak ezagututakoa. Lanera itzuli zenean kalean entzun eta ikusitakoa kontatu zigun, gure iritzia jakin nahian edo neska-mutil taldearen buru zihoan Urليا izatekotan guk geuk zer-nolako jokabidea izango ote genuen jakin nahian.

Gure hezitzaile taldean denetik dago: adin eta bizileku desberdinetakoak, hezkuntza mota desberdina jasotakoak eta abar; askotariko taldea da gurea, beraz. Gure artean gazteenetakoa hasi zen erantzuten. Haren ustez, ez dugu esku-biderik ikasleei beren jarduna isilarazteko. Lankidea herri euskaldun horretakoa da, inguru erabat euskalduna duena. Gainerako hezitzaile gehienok desadostasun keinua egin genuen. Hark, bere iritzian gehiago sakonduz, galdera itzuli zigun: «eta berdin jokatu-ko al zenukete 'Gora Alemania' edo 'Gora Portugal' esaten arituko balira?

Zer pentsa eman zigun galderak denoi, dudarik ez. «Bada, niretzat, gauza bera izan beharko litzateke», erantsi zuen dudari zirrikiturik ere utzi gabe. Desadostasun keinuak zalantziagoak bihurtu ziren.

Galdera onetatik omen datoz ikaspen onak. Galdera, ezbairik gabe, aberatsa da begiratzen den lekutik begiratuta, punta asko dituen. Herritar gisa, euskaldun gisa eta hezitzaile gisa kontraesanak pizteko modukoa: «eta zuk zer egingo zenuke egoera horretan?».

Eskerrak lantzean behin eguneroko bizitzarekin, bizitza errealarekin, kalean gertatzen den horrekin zerikusia duten egoerekin estropezu egiten dugun. Eta, orduan, gidaliburuak esaten dutenetik haratago, inguruari begiratu eta han saiatu behar dugun erantzuna aurkitzen.

Gu, haur ginelarik, ikastolako umeak izan ginen herri erabat erdaldunean. Beste eskoletako haurrek «los vascos» esaten ziguten. Ederki definitu zuen

gerora kide batek egoera hura: euskaldunak «gutxiengo etnikoa» ginen gure herrian bertan. Horregatik izango da, akaso, nik ez nuela zalantzarik izan nola jokatu nukeen erabakitzeke. Beste edozer oihukatzeko esango nieke, jakinik ere, beharbada, ez dela erantzun demokratikoa ezta politikoki zuzena ere. Adierazpen askatasunari muga jar-tzen ariko naizela, igual.

Baina zer nahi duzu, horixe da herri ez normalizatuok ordaindu behar dugun zerga gure burua defendatu eta munduan nor izaten jarraitu nahi badugu. Herri normalizatu batean burujabe ez garen arte eguneroko sortzen zaizkigun gisako egoeren aurrean kontraesanei aurre egin behar diegu; izan ere, izan behar baititugu marra gorri batzuk.

Bien bitartean, lanean jarraitzen dugu egoera horiek normaltasunez biziko ditugun eta gure identitatearekiko eraso gisa hartuko ez ditugun herri normalizatua eraikitzeke: bakoitzak nahi duen herria goratu eta aldarrika dezan, noski. •



Zenbaitetan, gidaliburuetatik kanpo topatu behar dira erantzunak.

Jagoba MANTEROLA | ARGAKZI PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

Pareko jarlekukoen duintasuna

Asteak aukera izan dut Goiena Telebistak ekotzitako Ion Salaberri zenari buruzko dokumentala ikusteko. Hogeitaz bete dira arrasatear hau hil zela. Salaberri ezaguna egin zen Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere hiesa zuela publiko egiten lehenetarikoa izateagatik eta horren alde egindako lanarengatik. Salaberri publiko agertu zuen heroina kontsumitzailea eta homosexuala zela, biak ala biak hiesaz kutsatzeko arrisku faktore erabakigarriak; eta gizartean garai hartan gaizki ikusiak zeudenak. Homosexualitatea kontu erabat pertsonala da, norberari bakarrik dagokiona; heroinazalea izatea, berriz, publiko bihurtzen da kasu askotan nahitaez.

Ezagutu ditut William Burroughs, Antonio Escohotado eta Lou Reed berak, besteak beste, kaleratutako lanetako batzuk, baina nik behintzat ez dut heroinarekin lotutako erromantizismo bizi izan. Nire aurreko belaunaldian ezjakintasunez gazte asko engantxatu ziren heroinarekin, jende kopuru ikaragarria. Gure belaunaldian, ordea, jakina zen horren kontsumoa areagotzeak eragin oso gogorrak izan zitzakeela, eta, horretarako, bakarrik bizi behar zenuela. Horrek salbatu gintuen.

80ko hamarkadaren erdian kalean bizi genuen eguneroa, han egiten genituen ordu ia guztiak. Arrasateko Sebero Altube plazan, herri erdi-erdian, egiten genituen ordu gehienak, eta handik oso-oso hurbil zegoen Gurea gaztetxean. Kolektiboen, punkaren eta heroinaren urteak ziren haiek eta heroina gogor sartuta zegoen batzuek kolektiboei eta punkarekin bukatu nahi zutelako. Hala, gauza asko nahastu ziren eta pertsona batzuk –asko tamalez– pertsona aktibo baliagarriak izatetik junkieak izatera pasa ziren. Junkieak diot heroinaren bilatze hori lanbide edo bizibide bakarra bihurtzen zutelako. Honela, gaztetxetik heroina eta kosta ahala kosta buruan heroina bakarrik zuten pertsona horiek botatzeko ahalegin ugari egin zituzten.

Hala, junkie askok eta askok lehen aipatutako plaza finkatu zuten topagunetzat. Hurbil-hurbil genituen eta egunetik egunera haien degenerazio fisiko zein psikikoaren eta oro har gainbeheraren lekuko zuzenak izan ginen. Haietako gehienekin inoiz hitz egin ez banuen ere, gogoan ditut haietako asko, ehunka modu desberdinetan, betiere gazteegi, hil zirenak: balkoitik jausita, auto istripuetan, gehiegizko dosia hartzearen, erabat ahulduta gaixotasun

gogor batek eramanda... Luzaroan plaza hartan batzen ari-tu zirenetako gutxi daude oraindik bizirik.

Errez antzematen genituen haien itxarote urduriak, ia eramanezinak, behar zutena heltzen zeneko antsietatea, bat-bateko jarrera eta adore aldaketa nabarmenak, auskalo-non-eta-nola-lortutako diruaren eskuratzea, batzuen hasierako konpartitzeko nahia, beste batzuen zitalkeria edo norberakeria. Inoiz –aldi bakanen batean– haietakoren bat bere itsutasunean gu erasotzen saiatu zen, diru bila, dosi bila, baina gure erantzun irmoaren aurrean bere ahultasunaz jabetu eta atzera egin zuen lotsatuta berehala. Izan ere, gaixoak ziren; egunerokoan beste gauza guztiak alboratuta erabat inoiz aseko ez zituela jakin arren ipar bakarra zutenak. Horren erakusle zen, besteak beste, horietako askok, behin beraien beharra aseta eta beste diru apur bat zutenean, biharamunari erreparatu gabe, umeen gisa, humanitate handia erakutsita nola jokatzeko zuten ikustea;

Kolektiboen, punkaren eta heroinaren urteak ziren haiek eta heroina gogor sartuta zegoen batzuek kolektiboei eta punkarekin bukatu nahi zutelako

apur hori ia ezezagunak izan zitzaketen ingurukoekin eskuzabal konpartituz.

Istorio grisak, krudelak, ziren heroinarako bakarrik bizi ziren pertsona haienak, kolorerik gabekoak; grisak, tristeak eta oso gogorrak; zer esanik ez, haien etxeetan eta lagunen artean; inola ere inoiz inon onartuko ez bazuten arren, galdutzat zituztelako.

Horietako askok, gainera, hiesaren bisita jaso zuten eta hura gelditzeko etorri zen, oraindik ere sendagai edo aringarri ezagunik ez baitzuen garai hartan. Eta horrek, are eta gehiago zaildu zuen pertsona haien bizirautea eta bizitza kalitatea. Salaberri bere azalean bizi izan zuen hori, eta halako batean egindako hautuari eta ondorioz lan erraldoiari esker, ezikusia egiten zitzairen pertsona haiei –eta beste batzuei– gizarteak poliki-poliki aurpegia jarri zien, nolabaiteko irtenbide aukera eskaini zitzairen –argi pixka bat eta duintasuna– eta beste eragile batzuek haien zaintza hobetzeko pausoak ematea lortu zuen. Lan itzela, duintasuna berreskuratzea. •

«‘Ugalkortasunaren industriari’ primeran datorkio legedia lausoa izatea»

U rte gutxian aurrerapen handiak ezagutu dira lagundutako erreprodukzio tekniken alorrean eta haiekin etorri dira eztabaidak. Ponpeu Frabra unibertsitateko irakasle Esther Farnos Oñatin izan da eta bere iritzia argi azaldu du: «Zientifikoki gauza asko egin daitezke, baina egin daitekeen guztia egin behar da? Nire ustez, ez».

«Emailearen anonimatua eta ezagutzeko eskubidea: oreka zaila» hizketaldiarekin gerturatu zara, zer neurritan daude kokatuta bata eta bestea?

Nazioartean gero eta herrialde gehiago dira adoptatutako haurra eta donatutako gametoen bidez sortutakoa modu berean tratatzearen alde egin dutenak. Hala, heldutasunera iritsitakoan batzuei aukera ematen diete emaileen identitatea ezagutzeko, eta, adoptatutako haurrei, berriz, guraso biologikoak. Espainian dagoen legedia oso aurrerakoa da arlo batzuetan, baina anonimatua gaia oso zorrotz arautzen du, eta soilik oso kasu muturrekoetan baimentzen du jatorria ezagutzea. Osasunarentzako arriskua edota arrazoi penalak egon behar dira tartean donanteen identitatea jakinarazteko. Horregatik, Espainia erreprodukziorako helmuga nagusienetakoa bilakatu da; beste estatu batzuetako jendea hona etortzen da, ziurtatzeko ez dela inor etorriko etorkizunean beren seme-alaben aita edo ama biologikoa dela esanez.

Zu haurrak bere jatorria ezagutzeko duen eskubidea lehenestearen aldekoa zara.

Bai, guk zalantzan jarri nahi dugu egungo legedia eta aldaketa eskatzen dugu; izan ere, egun ez dago orekarik. Nire ustez, anonimatua altxatzeak, gainera, emai-

leen profila aldatuko du, donatzaera joaten den pertsonak arrazoi altruistengatik egingo du, jakingo duelako une zehatz batean berekin harremanetan jar daitezkeela.

Emaileen kopurua murrizteko arriskua egon daiteke, akaso.

Herrialde batzuetan uste zen legedia aldatzen bazen, donazioak nabarmen jaitsiko zirela, eta horrek ardura handia eragiten du lagundutako erreprodukzioan aritzen diren profesionalen artean. Ikerketek erakutsi dute lehen unean donazioak jaitsi baziren ere, gerora aurreko mailan mantendu direla eta emaileen profila aldatu dela. Hala ere, uste dut donazio kopuruak behera egiteko arriskua ezin dela argudio gisa erabili, printzipio utilitarista hori ezin delako, nire iritziz, jatorria ezagutzeko eskubidearen gainetik jarri. Adopzioen kasuan haurrei eskubide hori aitortzen bazaie, zergatik ez donazio bidez jaio diren haurrei? Kasu horretan tratatu desberdina ematen zaie eta ez dago horretarako arrazoi objektibo zentzuzkorik.

Zer neurritan da garrantzitsua jatorria ezagutzea haurrarentzat?

Nire ustez, identitatearen erai-kuntzarako garrantzitsua da. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak identitatea pertsonen intimitatearekin lotu du, eta, beraz, pertsonaren identitatearen zati da nondik datorren jakitea. Agian, pertsona batek ez dio inolako garrantzirik emango, bere ustez, faktore biologiko bat baino ez delako, baina jakiteko eskubidea izan behar du. Nire ustez ez da moralki onargarria beste pertsona batzuek nik ezagutzen ez dudana informazioa izatea. Hausnarketa eragin behar duen zerbait da hori.

Informazio hori, izan ere, jasota eta gordeta dago.

Lagundutako Erreprodukzio Tekniken Legearen 5.5 artikuluan jasotzen da donanteen informazio orokorra gordeko dela eta soilik oso kasu zehatzetan emango dela informazio hori: jaioetako haurraren osasuna edo-

ta bizitza arriskuan dagoela uste denean, edota lege penalek ezarritako kasuetan, adibidez, erabakitzen bada donazioa egin zuen pertsonak bere material genetikoa ez zela ona jakinda egin zuela donazioa. Kasu horietan informazioa eska daiteke, jasota eta gordeta dutelako zentroek. Ikerketa antropologikoen arabera, beren jatorria dakiten haurrek ez dute inolako minik jasaten horregatik, maite dituzten familetan bizi direlako. Nazioartean hogeit hamar ordenamendu baino gehiagok arau hori aldatu eta sistema ireki baten alde egin dute. Horregatik, etorkizuneko lan ildoek gardentasun handiagoa baimenduko dutela uste dut. Filiazioa oso kontzeptu konplexua da.

Konplexutasun hori onartzea zail egiten zaigu?

Bai, eta gizarteak hori onartu behar du aldaketarako prest egotea. Espainiako gizartean kosta egiten da, jendeak uste du eta donazio bidez haurra izan dugula esateak ugalkortasun arazoak ditugula onartzea dela; zentzu horretan, oraindik auzia estigmatizatuta dago. Baina gizarteak pixkanaka ari da aldatzen, eta adopzio arloan nabari da. Kosta egingo da, besteak beste, medikuei ulertarazi beharko zaielako ezagutzeko eskubidea babestu behar dela. Medikuek esaten dute egungo legedia nahikoa dela inori ez zaiolako inporta emalea zein den. Nire galdera honakoa da: «Inori inporta ez bazaio, zergatik ez dugu informazio hori ematen? Zergatik mantendu arau hau niretzeko adibidez nire jatorria jakitea garrantzitsua baldin bada?».

Negozio handia eratu da lagundutako erreprodukzio tekniken bueltan. Agian hori da arazoa?

Bai, autore batzuk “ugalkortasunaren industriaz” mintzo dira. Negozio bat dago eta erreprodukzio zentro askori oso ondo etortzen zaie legedia lausoa izatea. Estatu frantsesean askoz ere legedi estuagoa dute alor honetan. Bikoterik ez duten emakumei, adibidez, ez zaie baimen-

ESTHER

FARNOS

ZUZENBIDE IRAKASLEA

Lagundutako erreprodukzio tekniketan

aditua, donazio bidez jaiotzen diren

haurrek euren jatorria ezagutzeko

eskubidea izatea oinarritzko jotzen du.

Maider Eizmendi



Argazkiak: Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

tzen lagunduriko ugalketa teknikak baliatzea. Italian orain gutxi arte ez zen baimentzen teknika hauek baliatzea donatutako gametoekin. Globalizatutako mundu batean bizi garenez, bikote italiar asko Espainiara etortzen ziren teknikok emaile anonimoekin erabiltzera. Gaur herrialdea ez da muga, jendeak bidaiatu egiten du.

Erregulazio bat ez izateak emaileen kontrola ere mugatzen duela diozu.

Bai, adibide bat jarriko dut: 1988an onartu zen erreproduktzio tekniken lehenengo legetik, bi arautegi onartu behar ziren donanteen eta zentroen aktibitatearen inguruan, baina onartu gabe daude oraindik. 2006an onartu zen ondorengo legeak be-

«Jatorria ezagutzeko eskubidearen alde nago. Adopzioen kasuan hurrei eskubide hori aitortzen bazaie, zergatik ez donazio bidez jaio direnei?»



rak ez zuen lortu aipatu araudiak onartzea. Sektorea derrigorrez bete behar ez dituzten jarraibideekin aritzen da. Esaterako, legeak ezartzen du donante batetik ezingo direla jaio sei haur baino gehiago. Arazoa da araudi orokor bat ez dagoenez, zentroek informazioa gurutzatu beharrik ez dutela, eta, beraz, pertsona batek zentro batean hamar donazio egin ditzakeela, beste hamar 50 kilometrora dagoen beste batean, beste hamar beste hiri batean... Hala jaio daitezke lasai asko hogeitasei haur emaile bakar batetik. Erregulazio faltak horrelako egoera arriskutsuak ere sor ditzake.

Jakiteko eskubidea bermatzeko ez ezik, arrisku horiek ekiditeko ere beharrezkoa da beraz erregistro bateratu bat.

Bai, legeak jaso eta oraindik ere sortu gabe dagoen erregistroa behar-beharrezkoa da. Administrazio publikoek izan beharko litzukete datu horiek, baina errealitatean erreproduktzio zentroak dira fitxa bat zabaltzen dutenak emailearen datuak jasotzeko.

Emaileak aipatu dituzu behin eta berriz. Zer-nolako profilak topatzen ditugu?

Semena ematen duen donantea mutil gaztea izan ohi da, 20 bat urtekoa, ikasten ari dena eta donazioarekin dirua bilatzen duena. Obuluen kasuan, prozedura konplexuagoa da eta oro har maila ekonomiko baxuko emakumeak dira, asko atzeritik etorritakoak donazioa egitera, horregatik 1.200 euro jasotzen dituzte-eta. Horrek, beraz, esplo-

tazio kutsua ere izan dezake. Nire ustez donazioak ordainduko ez balira profila aldatu egingo litzateke, eta, emailearen datuak ezagutzera emango balira, beste hainbeste. Askoz ere profil altuistagoa izango litzateke.

Emakume emaileen gaia aipatu duzu. Feminista hainbatek ez dituzte begi onez ikusten aipatu teknika hauek.

Feminismoa anitza da eta iritzi asko izan dira erreproduktzio tekniken inguruan. Sektore batek uste du teknika hauek emakumeak zapaltzen dituela, emakumea ama gisa irudikatzen duen eraikuntza soziala indartzen duela uste duelako. Korronte horren ustez teknikok ez dute askatasuna ekartzen, errealitatean egiten dutena emakumea

amaren rol tradizionalean berrestea delako. Gainera, uste da teknikok emakumea teknifikatu egiten dutela, oso teknika inbaditzaileak direlako. Era berean, emakumea nagusiki gizonak diren ikertzaileentzat ikerketa objektu bilakatzea salatzen da.

Beste feminista batzuentzat lagundutako erreprodukzio teknikak onak dira, aukera ematen dutelako noiz eta nola izan nahi duen emakume batek ama erabakitzeko, eta, ezin badu, horretarako aukera ematen dutelako. Emakume gisa askatu egiten dute, emakumeak erabakitzen duelako zer egin nahi duen bere bizitzarekin. Aldiz, lehen olatuko feministentzat hori pozoitutako diskurtsoa da, azken batean emakumeei “emakumea-ama” eraikuntza soziala eragiten die-lako. Nik uste dut lagundutako erreprodukzio teknikak tresna bat gehiago direla, kontua da nola erabiltzen ditugun. Emakumeak informazioa badu, eta, informatutako baimen dokumentuak argi azaltzen bazaizkio, ez dut halako arazorik ikusten. Arazoa da kasu askotan ez dela behar adina informazio ematen. Horregatik uler ditzaket kritiko agertzen diren sektore batzuen arrazoiak. Adibidez, egin behar duzun tratamenduaren arrakasta tasa azaltzerakoan, lortutako haurdunaldiez hitz egiten dute zentroek, ez haurdunaldia garatu eta jaio diren hurrez, eta hori ez da informazio guztia ematea. Kontrol gehiago egongo balitz, ezingo lituzkete datuak nahi erara erabili.

**Orain urte batzuk pentsaezina-
nak ziren aurrerapenak egin
dira eta pentsatzekoa da au-
rrera begira ere etorriko dire-
la. Zer-nolako eztabaidak au-
rreikusten dituzue?**

Sektore honetan errealtatea zuzenbidearen aurretik dago. Zuzenbideak arazo berriekin egiten du topo egunetik egunera. Zientifikoki gauza asko egin daitezke, baina beharrezkoa da etikoki egin daitezkeen zehaztea. Orain 30 urte jaio zen Espainian *in vitro* teknika erabilita lehen haurra. Orduan inork ez zuen mahaiaren gainean jartzen or-



dezkapenezko haurdunaldia. Orain, berriz, bikote espainolek eta bikoterik ez duten gizonetakoek ordezkapenezko haurdunaldiak onartzen dituzten herrietara bidaiatzen dute. Arlo honetan honakoa aipatu beharra dut: 90eko hamarkadarako haurrik izan ezin zuten bikoteek AEBetara bidaiatzen zuten jada, eta ekartzen zituzten haurrak arazorik gabe inskribatzen zituz-

*«Errealtatea
zuzenbidearen
aurretik dago.
Zientifikoki gauza
asko egin daitezke,
baina etikoki egin
daitezkeen zehaztea
beharrezkoa da»*

ten bikote heterosexualak zire-lako. Bikote homosexualak gauza bera egiten hasi zirenean, aukera hori kritikatzeko hasi ziren asko. Egun atzerrira bidaiatzen dutenek itzuleran erregistroan inskribatu ezin dituzten haurrak ekartzen dituzte, eta epaile eta erregistroko arduradunek nola edo hala erantzun behar dute. Erantzun horiek beharrezkoak dira, baina, aldiz, orain artean

ziurgabetasun juridikoa ematen duten irtenbideak bilatu dira.

**Zientziaren aurrerapen bat-
zuei mugak jarri beharra au-
rreikusten duzu?**

Ezarpenaren aurreko diagnostiko genetikoak etorkizuneko haurraren zenbait ezaugarri aukeratzeko modua ematen du. Espainian helburu terapeutikoe-kin baino ezin da baliatu, baina egunen batean norbaitek sexua aukeratzeko proposatzen badu? Gaur egun ez dago onartuta baina egin daiteke, eta herrialde batzuetan egiten da. Eta beste ezaugarri batzuk aukeratzeko erabili nahi bada? Kasu horietan arazo etiko oso garrantzitsuak sortzen dira eta etikoki mugak jartzea beharrezkoa da. Galderari erantzunez, egin daitezkeen guztia egiten utzi behar da? Nire ustez, erantzuna argi dago: «ez».

**Ez duzu uste teknika hauek
guztiek filiazio biologikoaren
garrantzia indartzen dutela
berriz ere?**

Lagundutako erreprodukzio teknikak familia eredu tradizionala betikotzeko etorri dira, hori egia da, baina, era berean, familia eredu berriei amatasunerako edo aitatasunerako sarbidea ere eman diete. Ikuspuntu horretatik aukera eman dute familiaz baino familiez mintza gaitzen. Zentzu horretan onuragarria da, baina egia da esentzialismo biologikoaren kutsua ere baduela.

Nire ustez lagundutako erreprodukzio teknikak bigarren aukera bat izan beharko lirатеke, badirelako familiarik ez duten haurrak. Zientifikoki posible denez, atzera itzulerarik ez dago, are gutxiago behin Espainian sortukoaren pareko *lobby* bat sortuta dagoenean. Horregatik, esfortzua egin behar da egiten diren prozedura hauek guztiak osasun segurtasunarekin eta segurtasun juridikoarekin egin daitezkeen. Administrazioari dagokio hori ziurtatzea eta adopzioa bigarren mailan gera ez dadin lan egitea. Beti esan izan da adopzioa haur bati familia ematea dela; lagundutako erreprodukzio teknikak, aldiz, haur bat ematen diote familia bati.



IKUSMIRA



PARETETAKO HAUTAGAIEN ANTZ HANDIEGIA

Zenbat promesa eta agindu paretetatik, bozgorailuetatik, markesinetatik, postontzitik... Oraintxe, ezin da bat lasai ederrean egon, besterik gabe, egonean. Gutxien espero duenean, espero ez duen formatuan, «bozkatu!» hau, «bozkatu!» bestea, «eman botoa» honi, «babestu» hura...

Konbentzitu ez dakit konbentzitzen ote gaituzten. Paretetako karteiei begira geratzen gara irribarreak egiatakoak edo faltsuak diren bereizteko; akatsak ikusteko eta barre pixka bat egiteko. Izan ere, batzuetan hain da lausoa sinesgarritasunaren eta erridikuluaren arteko marra...

Arazoa da badakigula paretetan, bozgorailutan, markesinetan eta postontzietan agertzen zaizkigun aurpegiak eta promesak oso neurtuak direla, estrategikoki neurtuak. Eta, gero, egiatako hautagaiak parean ditugunean, paretetako antz handiegia hartzen diegu.

Altxatzeko dio besteak neurrira egindako panel horretatik. Kasu egin beharko diogu. Altxatu egin beharko dugu maiatzaren 25etik aurrera gure jendartea kudeatzeko ardura dutenek tente-tente dagoen herri bat topa dezaten parean.

amagoia.mujika@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Erreleboa Bizkaiko baserri ekologikoetan

Baserri ekoizpenak daukan arazo larrienetakoa da zenbait hamarkadatik hona bizi duen zahartze-prozesua. Pasa den mendeko 80ko hamarkadan, dagoeneko, horretaz mintzo ziren estatistikak, eta joera ez da aldatu, txarrera ez bada. Egun, Bizkaiko ustiategietako titularren adina 50 urtekoa da batez beste. Hau da, erretirotik gertuago, lanean hasteko adinetik baino.

Izanak izan, duela 30 urte zenbait gaztek erabaki zuten baserriratzea, eta hori egitea, gainera, nekazaritza ekologikoan. Gazte zoro haiek ezarri zituzten Bizkaiko nekazaritza ekologikoaren oinarriak, beste askori bidea zabalduz. Gaur egun, erretiro-rako adina gertu ikusten dute. Galdera da, erretiroa hartzen badute, ba al da hutsune handi hori beteko duen erreleborik?

BIZKAIGANE ELKARTEA (ERRIGOITI). BEHI ESNE GORDINA, BEHI ETA ARDI GAZTA

23 urteko gazteak artean, 1983an erabaki zuten Jon Barainkak, Xabier Arriagak eta Jon Arriagak baserriratzea, Bizkaigane Elkartea sortuz. 2004an, ekoizpen ekologikoaren erroldan izena ematea erabaki zuten. Hiru hamarkadako ibilbidean, jende ugari pasatu da Bizkaiganetik, izan boluntario gisa, izan langile gisa, eta baita bazkide gisa ere. Gaur egun, bost kidek osatzen dute Bizkaigane Elkartea. Jon eta Xabierrek bertan jarraitzen dute, eta azken urteetan beste hiru bazkide gehitu dira kooperatibara: Patxi, Mikel eta Loren. Seigarrena izango dena ere dagoeneko bertan dago. Elkartek duen gabezia bat beteko du Ametsek gainera: emakumeen presentzia-rena.

Erreleboaz galdetuta, Jonek aitortzen du horretan pentsatzen hasiak direla, «Bizkaiganeren transmisioa egitea bada gure arduretako bat duela zenbait urtetik hona». Argitzen dute erreleboa ez dela arazoa Bizkaiganen. Izan ere, lanerako prest dagoen jendea egon badago. «Zailagoa da taldearentzat egokia den pertsona topatzea. Azken finean, gu talde bat gara, denok dakigu denetik egiten, nahiz eta egunerokotasunean betebeharrak hein batean finkatuta dauden. Pertsona berria funtzionamendu horretan txertatu behar

da». Lorenek, «berriak», nabarmentzen du etengabeko lanketa egitea ezinbestekoa dela, lantaldearen funtzionamendua egokia izan dadin. «Daudenek funtzionatzeko era bat dute, eta berriek, agian, beste bat. Oreka lortzea da gakoa. Sartzen den pertsonaren lanak definitzeari garrantzitsua

deritzot. Edonola ere, gurea bezalako proiektu batean oinarri-oinarrizkoa da denok denetik egiten jakitea». Horretan, Lorenek gako bat ematen du: harremanak asko zaintzea.

Irudi lezake Bizkaigane Elkartearen bizi-raupena bermatua dagoela, baina badago

hori zalantzan jartzen duen zerbait. «Guk ez dugu guretzako proiektu bat egin, gure planteamendua beti izan da proiektua garatu, eta ondorengoei lagatzea, baina azpiegiturak eta lurra ez daude gure izenean, hori arazo bat da. Prest geundeko eraikin bat altxatzeko administrazioaren laguntzarekin, eta gero eraikin hori administrazioaren jabegoan lagatzeko. Hemen inguruan administrazio publikoak lurra erosiko balu, alokairu duin batean ere hartuko genuke. Diru publikoa jartzen bada eraikinak altxatzeko, zergatik ez da ba jarriko lurak erosteko?».

Bien bitartean, berrikuntza prozesua tentuz egiten ari dira Bizkaiganen, «ikusi behar dugu nola egin, nola joan jende berria sartzen, eta zein den lantaldeak behar duen profila». Ametsek, gehitu den azkenak, doikuntza prozesua gutxika egiten ari dela dio. «Era oso naturalean egiten ari gara txertaketa, egunerokotasunean, gutxika. Hemen ez duzu dena egun batetik bestera ikasiko! Oso garrantzitsu deritzot baserriko ezagutzen transmisioa egiteari. Bizkaiganen hori egin daiteke, baina, bestela, zaila da, besteak beste nagusien eza-gutzak ez direlako baloratzen. Jakintza asko galtzen ari dira». Nabarmentzen du dagoeneko martxan dagoen baserri batean lanean hastea abantaila handia dela gazteentzat, bereziki abeltzaintza ekologikoa egin nahi bada, «bestela, hutsetik hasi behar bazara, ia ezinezkoa da inbertsioei aurre egitea». Bizkaiganek emakume bat taldean sartzeko erabakia hartu izana asko eskertzen duela azpimarratzen du, «beste ikuspuntu batzuk dauzkagu emakumeok, bai antolakuntza mailan eta baita komunikazioan ere. Horrezaz gain, ganaderitzan, badirudi emakumeak ez duela lekurik, baina hori ez da egia. Are gehiago, nire ustez, sektorearen etorkizuna emakumeetatik pasatzen da».

JOSE ANTONIO ETA AMAIA LEKUE (LARRABETZU): ORTUGINTZA AIRE LIBREAN ETA NEGUTEGIAN, ETA FRUTAGINTZA

Amaia nerabea zela joaten zen aitaren solara, patataren kakarraldoak harrapatzen edota, inoiz, porru landaketa egiten. «Ez nuen bokazioz egiten, ezta gogoz kontra ere, baina ez zen nire motibaziorik han-



diena... Duela urte eta erdi inguru, aitzak proposatu zidan berarekin lan egitea, otzarak prestatzeko. Azkenean, soloan sartzen ere bukatu dut».

Orain oso gustura dagoela argitu du baserritar gazteak. Aitarekin oso ondo moldatzen dela dio: «pazientzia handia dauka». Otzarak prestatzea eta diru kontuak eramatea dira bere eginkizunak, baina soloaren antolakuntzan gabezia gehiago dauzkala aitortu du. «Otzarak antolatzea zaila da eta aitari planteatu nion beste nolabait egitea, astero hiru egun ematen ditugu merkaturatze-lanetan-eta! Gainera, soloaren maneian gabeziak dauzkatzat, denbora gehiago pasatu beharra daukat aitarekin, ikasteko. Bi urte barru, aitari erretiro garaia iritsiko zaio. Pentsatu ere ez dut egin nahi. Edonola izanda, hemendik (ortutik) kanpo ez naiz ikusten, ikasiko dut».

Gazte batentzat lehen sektorean sartzeak zer suposatzen duen galdetuta, dio baserriratu nahi duenak argi izan behar duela bizitzaren beste planteamendu bat dela honakoa. «Ekonomikoki aterako duzun etekina ez da oso handia izango, eta, lanorduak zenbatzen ibiltzea baino, hobe duzu ez zenbatzea. Beste kontu garrantzitsua da zure bizitzaren antolakuntza gizartearen funtzionamenduaren aurka doala: aisialdirako edo lanetik kanpo beste jende batekin egoteko denbora askorik ez zaizu geratuko. Hori barneratu eta onartzea oso garrantzitsua da. Lana gogorra da, eskakizun fisiko handia



www.reciprocity.org

dauka, baina ohitu ohitzen zara, eta lan polita da».

Jose Antoniok, bere aldetik, aitortu du alaba berarekin lanean hasi izanak «kris-toren poza» eman diola. 2000. urtean erabaki zuen Amaiak Itzulpengintza ikasketak utzi eta baserritik bizitzea, ekoizpen ekologikoa eginez. Baserrian arazo estrukturala dagoela uste du. «Az-

ken urteetan sakondu diren arazo estrukturalen artean, baserrien transmisioa izan da bat. Badago besterik, ordea: gauza bat da jendea prest egotea baserriratzeko, eta beste gauza bat da jende horrek baserria martxan jartzeko aukera izatea. Hori ez da bideratzen ari. Beste jarduera ekonomiko batzuekin alderatuz gero, argi ikusten da: industria jarri nahi

duenak bide administratibo zehaztua dauka, baserriarentzat ez dago horrelakorik». Aldi berean, potentzialtasunak ere ikusten ditu: kontsumo taldeei eta salmenta zuzenari eman zaion bultzadarekin, gazteen inkorporazioa zertxobait erraztu dela uste du. Azkenaldian baserriratzeko asmoa erakutsi duen jende kopurua eta aukeratzen duten ekoizpen eredua ere nabarmentzen ditu, «gazteak ekologikoan datoz. Hori baliatzen ahalegindu behar gara, eta arazo estrukturaleri irtenbideak topatzen. Azpimarratu behar da elikaduraz eta lanpostuez ari garela. Nekazaritzak ekonomia sor dezake, luzerako, gainera. Apustua egin behar da horren alde».

Epe luzerako planteamenduez mintzo da larrabetzuarra, elikadura burujabetza eta ekonomia lokalean oinarritutako proiektuez. «Nik egindako inbertsioak luzerako planteatuta daude, ez nire lanbizitzarako soilik. Gerora beste batzuek erabiltzea izan da beti asmoa». Gazteentzat duen gomendioa honakoa da: «Hasieran, batez ere, gauzak argi izatea, eta inbertsioak neurtzea. Jakin behar da, baita ere, epe luzerako inbertsioa dela hau, zentzu askotan: ekonomikoki eta baita bizimoduaren aldetik ere. Ez zara aberastuko, eta gutxika ikasten joango zara».

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

Kasualitateak

Mirari Martiarena

Kasualitatez hasi nintzen nire ofizioan kirol kazetaritza lantzen. As-telehenetan kirol emaitzak eman behar ziren eta oraindik nola ez dakidala neronek hartu nuen horren ardurara. Inoiz jardun horretan aritu gabea nintzen. Iritzi zutabeak egiten ere ez naiz inoiz aritu eta GAUR8n ere kasualitatez ari naiz idazten. Kasualitate gehiegi.

Kirolari buruz gauza askorik jakin gabe, kasualitatez, Mikel Aranburu, Abel Barriola, Iñaki Perurena eta Joxe Mari Olasagasti soilik ezagututa. Mundu berri bat deskubritzea izan zen eta mundu horren azpian beste mundu bat bazegoela eta badagoela ezagutu dut. Bigarren dimentsio bat, emakumeen kirolarena. Lehen Mailako emaitzak eman, Bigarren Mailakoak, Bigarren B

Mailakoak eta ondoren hasten da bigarren dimentsio hori. Emakumezkoen Lehen Maila, Emakumezkoen Bigarren Maila, Emakumezkoen Kopa...

Zergatik azpimarratu behar dut behin eta berriz «emakumezko» hitza? Nire erantzuna «gizonezkoena» ere esatea izan zen futbol emaitzen kasuan. Lasterketetan ere gizonezkoetan nork irabazi zuen esaten nuen eta ondoren emakumezkoetan nor izan zen lehena, konturatu nintzen arte Unai eta Mirenek irabazi zutela esanda nahikoa nuela.

Kasualitatez, iaz, Emarri giza proba taldean hasi nintzen, animatzaile sutsu bezala. Oiartzun, Astigarraga eta Lezoko emakumeek osatzen dute taldea eta bihar jokatu dute Perurenako I. Giza Proba

Txapelketa, Ibarako eta Zeanuriko taldeen kontra. Kartelak eman dizkigu nahiko buruhauste: Perurenako Emakumezkoen I. Giza Proba Txapelketa, Perurenako I. Emakumezkoen Giza Proba Txapelketa, I. Emakumezkoen Giza Proba Txapelketa Perurenan, Perurenako I. Giza Emakumeen Txapelketa...

Perurenako Emakumeen I. Giza Proba Txapelketa argitaratu dugu karteletan, argazkietan ikusi arren harriari tiraka ariko diren 24 kirolariak emakumeak direla. Baina emakumeak garela azpimarratu behar horrekin estutu dugu gure burua, eta beti zen ondorio bera, gizonezkoek ez luketela inongo momentutan gizonak direla azpimarratzeko beharrik izango. Eta hori ez da kasualitatea. •

infraganti

ARAITZ URTIAGA

Itsasoari begira bizi da Zarautz. Bertako hondartzako olatuetan trebatu dira Aritz Aranburu, Hodei Collazo, Axi Muniain edo Lore Eizagirre surflariak eta hondar gainean egin zituen aurreneko geldiketak Joxe Anjel Iribar atezain mitikoak. Azken asteetan, aldiz, arreta kiroldegian loratutako talde batek bereganatu du. Izan ere, Oviedon jokaturako lauko finalean, Aiala Zarautz eskubaloia taldeko neskek Ohorezko Mailara igotzea lortu zuten maiatzaren 2an.

Urteetako lanak saria eman du eta horren jabe da Araitz Urriaga, Aiala Zarautz taldeko jokalaririk garrantzitsuenetakoa. «Izugarria izan da. Gure kirol amets politenetan ere ez zen horrelakorik ageri. Oviedon bitako guztia, garaipena, baina baita gure herrikideengatik jasotako berotasuna, ikaragarria izan da benetan. Zaila egiten zait sentitutakoa hitzekin deskribatzea, oraindik urduri jarritzen naiz pentsatzearekin bakarrik. Urte asko dira mailari eusteko borrokan pasa ditugunak, eta beste hainbat sailkapenaren erdian murgilduta ibili garenak; aurtengo denboraldia, baina, ezin politagoa izan da», hasi du kontaketa. «Guk gozatu egin dugu, baina jendeak gurekin gozatu duela ere sentitzen dugu eta hori sentsazio itzela da. Guztion garaipena izan da».

Mende erdia igaro da Zarauzko eskubaloia taldea sortu zenetik eta bere historian zehar soilik behin aritu da Ohorezko Mailan. Harrobia lantzea izan da bere ezaugarri nagusia, hainbat boluntarioren ezinbesteko parte hartzearekin. Urriagak proiektuaren oinarri gisa jotzen duen elementua da boluntarioen ekarpena. «Euren lan, babes eta animo gabe ez zen berdina izango, inondik ere. Argi dago, beraz, Zarauzko eskubaloia gaur egungo sistemarekin puskatzen duen etorkizuneko apustu bat dela, eta begi bistakoa da honek ere emaitza onak eman ditzakeela», nabarmendu du.

Urriagaren lehen kirol urratsak ikastolako taldean heldu ziren: «Eskola kirolean parte hartzen genuen eta horrela kirol diziplina desberdinak ezagutzeko aukera genuen. Askok eskertzen dudana zerbait da. Eskola kirola kirol aniztasuna bultzatu eta lehiaz harago heziketarako tresna gisa baliatzen da. Horretarako haurren adin, gaitasun eta ezaugarriak kontuan hartzen dira».

Nerabezaroan hautatzeko unea ailegatu zitzaion eta ez omen zen erabaki erraza izan, kirol ezberdinetan gustura aritzen baitzen. «Azkenean, ez dakit lagunengatik edo inguruko giroarengatik, baina eskubaloian federatu nintzen. Beraz, 14 urterekin Zarauzko eskubaloia sailean hasi nintzen eta oraindik ere bertan nabil».

Federatu eta bi urtera jada lehen taldearekin debutatu zuen Urriagak. Horrela gogoratzen ditugu garai horiek: «Urte pare bat izan ziren gazteen ekipoaz gaindi seniorretan ere aritu nintzela, ez nintzen bakarra, nire betiko lagunak nirekin zeuden eta gaur egun ere oraindik elkarrekin jarraitzen dugu. Lagunak oso garrantzitsuak izan dira nire eskubaloia ibilbidean, beraiek izan dira aurrera jarraitzeko arrazoi nagusia».

KATEGORIA MANTENTZEKO BORROKA

Ohorezko Mailan jokatzeko txartela eskuratu aurretik, zarautzarrek zilarrezko mailari eusteko komeria latzak pairatu dituzten denboraldiak ezagutu dituzte. Orduko partida erabakigarriak ere Urriagaren oroime-



Araitz Urriaga Zarauzko kiroldegian lasai eserita, jokalaria bezala hazten ikusi duen tokian.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

nean oso presente daude: «Behin baino gehiagotan kategoria mantentzea azken partidaren jokatu genuen, eta partida horiek ere izugarriak izan ziren, ez ditut inoiz ahaztuko. Eta gaur arte, denboraldi batzuk pasa dira sailkapenaren erdian amaitu duguna».

Bere ibilbide osoan bidelagun izan dituenak oso presente ditu. «Denboraldi bakoitza berezia izan da niretzat, gauza asko bizi izan ditut eta horietako bakoitzean izan ditudan taldekide eta entrenatzaileei eskerrak eman nahi dizkiet, beraien ekarpenari esker iritsi baikara Ohorezko Mailara», nabarmendu du.

Taldekideekiko miresmena igartzen da Araitzen hitzetan. «Guztien inguruan ditut gauza on asko esateko, baina horretarako hedabideak ez diren bide batzuk bilatuko ditut. Euretako askorekin bizitzako une ugari bizi izan ditut, asko sufritu dugu azken urteetan, baita barre asko egin dugu ere. Beste batzuekin ez dira hainbeste urte elkarrekin bizitakoak, baina denak ederrak izan dira». Jada taldean ez daudenak ere gogoan ditu: «Garaipen hau horiekin guztiekin gozatzea ikaragarria izan da. Eta baita aipatu ditudan urte horietan guztietan nirekin

sufritu eta gozatu duten taldekide ohi guztiekin ere, noski».

Oviedon jokaturako partidetan zaleen berotasuna nabarmentzekoa izan zen, eta, ondoren, harrera beroa jaso zuten Zarauzko kaleetan. Estalkirik gabeko kamioian egindako ibilbidean, bizilagunen babesa gertutik bizi izan zuten. Horietarik asko umeak, etorkizuneko jokalariek. Urriagak umiltasunez aztertzen duen egoera da hori: «Eredu edo ispilu deitzea gehiegitxo esatea dela pentsatzen dut. Eredua Zarauzko eskubaloia bera da, kluba osatzen duten partaide guztiak. Xume-xume ikaragarritzko lana eginez balore batzuk zabaltzen saiatzen gara eta horrek ere jendea kirol honetara lotzen laguntzen du». Hari horretatik tiraka, ondorengo gehitu du: «Gu, azken finean, azken egunetan mediatikoki izan dugun oihartzunaren ondorioz, eredu hori argitara atera dugunak gara, eta oso harro gaude horrekin. Beraz, saiatuko gara horrek dakarren ardura hartu eta Zarauzko eskubaloia- ren baloreak zabaltzen».

Lortutako arrakasta genero ikuspegitik ere nabarmentzen du: «Neska gazteei emakumezko kirola inoiz baino biziago dagoela erakustea lortu dugu eta



Araitz Urtiaga Oviedon, Sporting La Rioja taldearen aurka jokaturako finalean. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

horrela beraien jokatzeko gogoia handitu eta parekidetasunaren alde borrokatzeko beren grina handitzea espero dut».

ESKUBALOIA, OSASUNTU

Datorren denboraldian hiru euskal talde izango dira espainiar Estatuko Emakumezkoen Ohorezko Mailan: Bera Bera, Zuazo eta igoera lortu berri duen Aiala Zarautz. Aurten, zilarrezko txapelketan, zortzi euskal talde egon dira eta berriki lehiatutako frantses Estatuko departamentuen arteko lehiaketan, Nafarroako taldea garaile suertatu da. Datuok euskal eskubaloiak bizi duen egoera osasuntsuaren seinale dira, bai behintzat egindako ahaleginari eta jokalariei zein teknikariari lanari dagokionez. Zoritxarrez, ispiluak badu kontrako alde ere, diru eskasian, bitarteko gabezia eta profesionaltasunera iristeko ezintasunean oinarritzen dena.

Errealitate horren jakitun, Urtiagak beste analisi bat mahai-gaineratzen du, kirol talde batek bere ingurune hurbilarekiko duen harremanaren garrantzia nabarmenduz: «Kirola balore herritarra den heinean, herritarrek aukera gehiago dituzte parte hartu eta parte sentitzeko.

Herri bati bertako herritarrez osatutako talde batek zirrara izugarria eragin diezaike eta horrek indar berezia ematen du, oso garrantzitsua. Zarauzko eskubaloia horrelakoxea da, herritarra, eta horregatik lortu dugu herri bat atzetik izatea. Beraz, lorpen handiak eman ditzakeen beste kirol eredu bat posible dela pentsaraztera eramaten nau horrek».

Zarauztarrek jasotako laudorioak ez dira soilik etxetik iritsi, Oviedoko lauako finalaren amaieran, espainiar federazioko ordezkariak hitza hartu zutenean, «*cuidar esa afición que es de oro*» esaldiarekin Gipuzkoatik joandako jarraitzaileen portaera eta taldearekiko gertutasuna nabarmendu zituzten. Horiek horrela, Urtiagak berak ere honako mezu hau errepikatu nahi du: «Bihotz-bihotzez eskerrik asko denei. Denok gozatu ahal izan duguna izugarria izan da».

AIALA-BERA BERA DERBIAK

2015-2016 kirol sasoiko arretagune nagusietako bat Donostiako Bera Bera taldeak eta Aiala Zarautzek jokaturako dituzten derbiak izango dira. Orain arte, sarritan lagun arteko partidak lehiatu izan dituzte. «Euren aurka Ohorezko Mailan jokatzeari

inoiz imajinatu gabeko ametsa da. Urte asko daramatzagu lanean eta aurreneko aldia da horrelako zerbait lortzeko aukera dugula. Niri ez zaizkit urte asko gelditzen eskubaloian eta ez nuen inoiz imajinatuko horrelako urterik bizitzerik, ezta maila gorenean aritzeko aukera izango nuenik ere. Beraz, benetako zirrara sortzen dit horrelako talde baten aurka lehiatzeak».

Bidebieta auzoan jokatzeko duen taldearen baitan, Eli Pinedo edo Matxalen Ziarsolo bezalako jokalariek entzutetsuak daude, dirdira handikoak. Horiekin batera, Urtiagak, «bertan dabil-tzan eta besteak bezala maila altua duten zarauztarrak» nabarmendu nahi izan ditu, «orain dela urte batzuk, gaztetxoak zirela, gurekin aritutakoak baitira». Urtiagaren hitzetan, «beraien aurka jokatzeari oso berezia izango da».

Orain arte, azken kanporaketetan salbu, partida gehienak Euskal Herrian jokatu dituzte, edo Kantabria eta Errioxako taldeen aurka. Baina igoera erdie-tsi ostean, espainiar Estatuko klub ezberdinen aurka arituko dira zarauztarrak. Hortaz, bi asteburutatik behin bidaia luzeak egin beharko dituzte, ia guztietan –Kanariar uharteetara sal-

Datorren denboraldian hiru euskal talde arituko dira espainiar Estatuko Emakumezkoen Ohorezko Mailan: Bera Bera, Zuazo eta igoera lortu berri duen Aiala Zarautz

«Beste euskal taldeen aurka Ohorezko Mailan jokatzeari inoiz imajinatu gabeko ametsa da. Urte asko daramatzagu lanean eta lehen aldia da horrelako zerbait lortzeko aukera dugula»

bu- autobusez. Horrek jokalarien errutina aldatuko ditu, baina ez bizimodua, lana edo ikasketak eskubaloiarekin uztartzen jarraitu beharko dutelako. «Ez dugu gehiegi hitz egin horren inguruan, egindakoaz gozatzeko ari baikara oraindik. Badakigu egunerokoa berdina izango dela, ezin izango baitugu gehiegi aldatu. Gainera Zarauzko kiroldegiko pista beste talde askorekin elkarbanatu behar dugu eta horrek ere entrenatzeko aukerak mugatzen ditu».

Desplazamenduei dagokionez, mentalizatzen hasita dira: «Aurretik ere ibiliak izan gara espainiar Estatuan barrena. Baina orain, bi astetik behin bidaia luzeak egitea egokituko zaigu. Badakigu neketsua izango dela. Beraz, nik uste dut hasieratik kontzientzia izan behar dugula horrek dakarrenaz, eta jakin ez dugula ezer galtzeko; horrela lortzen dugun txikiena ere gozatzeko ikasiko dugu».

EUSKAL KIROLAK EMAKUME IZENA DU

Azken urteetan, hainbat dira kirol arloan nabarmentzea lortu duten euskal emakumezkoak. Taldeka, Athletic futboleko, Real belar hockeyan, Gernika saskibaloian, Bera Bera, Zuazo edo Aiala Zarautz eskubaloian. Bakarka, berriaz, ezagunak dira Edurne Pasaban, Maialen Chourraut, Maider Unda, Lara Arruabarrena, Leticia eta Loiola Canales ahizpak, Beatriz Rekari, Carlota Ziganda edo Ophelie Aspord. Eurak izan dira oro har emaitzarik onenak lortu dituzten euskal kirolariak. Baina, sarritan, lortutako errendimenduak ez du behar bezalako tokirik hedabideetan edo diru irabaziei dagokionez. Horren inguruan galdetuta, Urtiagak argi du: «Titularrak eta fokuak emakumeen kasuan errazegi itzaltzen dira. Hala ere, desoreka ho-

ri kirolaz harago, eguneroko bizitzan bizi dugu. Kirolean deigarri gerta daitekeen arren, horri buelta emateko kirolaz harago joan behar da. Jendarte parekide bat lortu behar da, eta, horretarako, erroko aldaketa bat ezin bestekoa da». Irakurketa kritiko horri segika, Aiala Zarautz taldeko jokalariairentzat, «garrantzitsua da esparruz esparru, kirolean ere, aldaketak ematen hastea eta desoreka horrekin puskatzen hastea. Horregatik, lehen kirol eredu zalantzan jarri dudana bezala, dugun herri eredu ere eraldatu behar dela diot, arazoak bere horretan iraun ez dezan».

Jakitun da uneotan olatuaren aparrean daudela, baina itzaleko lana izan da euren. «Goi mailako izarrak izan arren, kirolaz bizi diren emakumeak oso gutxi dira gizonezkoekin alderatuz gero. Hortik hasita argi geratzen da zein den egoera. Baina desberdintasun hori ezin da egunerokoan bizi dugunetik bereizi. Egunerokoan emakumeen kalitatea zalantzan jartzen da edota zuzenean gutxietsi egiten da».

Bi aste igaro dira igoera eskuratu zutenetik, eta, «egunen joan-etorriak, lortu dugunaz kontziente egiten zaitu. Hala, gauza ikaragarria egin dugun sentsazioa goraka doa nire barnean. Zailtasun eta zapalketa guztien gainetik lortutakoak are eta bali handiagoa duelako».

Kantxatik at, oinak eta burua lurrean ditu Araitx Urtiagak, gertu, adi, errealitateari atxikita. Pistan, aldiz, urritik aurrera, eskuak eta gorputza izarren artean izango ditu, eurekin lehiatzen, istorio eta eredu ezberdin bat idazten jarraitzeko prest. Datorren denboraldian, ez galdu Aiala Zarautz taldeko «11» zenbakia- ren pista! •

Beñat Zarrabeitia Asensio

**Montse Maritxalar**

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Teknologia gazteentzako debeku?

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiez inguratuta bizi gara gaur egun. Smartphone, tablet, Whatsapp, Facebook, Instagram, Youtube, Wikipedia, Google, Twitter... zeinek ez ditu hitz horiek denak, edo horietako batzuk, ezagun? Eguneroko bizitzaren osagai bihurtu dira denbora gutxian. Gizakiok elkarren berri izan, informazioa eta jakinduria transmititu, iritziak trukatu, bizimodu pertsonala publiko egin... anitza da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskainitako baliabideei ematen diegun erabilera.

Dagoeneko 25 urte badira World Wide Web (WWW) sarea jaio zenetik. WWW edo erabiltzaile arruntok Internet deritzoguna baliabide ahaltsua bihurtu da gaur egungo gizartean. Informazioa era azkar batean bilatzeko aukera emateaz gain, informazioaren argitaratzaile izateko bidea ere eskaintzen digu. Bi hitzetan, informazioaren gizarte honetan "informazio sortzaileak" bihurtu gara gizabanakook, rol aktibo horrek kultura aldaketa bat ekarri duelarik.

Kultura aldaketa edo belaunaldi aldaketa? Batzuek diotenez, 1980 baino lehen jaio garenok immigrante digitalak omen gara, 1980 ondoren jaiotakoak, aldiz, natibo digitalak. "Natibo digitala" kontzeptua Prenskyk definitu zuen 2001ean irakaskuntzaren testuinguruan. Bere aburuz, XXI. mendeko ikasleek ikasteko zein informazioa prozesatzeko estrategiak aldatu egin dituzte teknologia digitalaren bilakaera azkarren ondorioz. Informazioa edozein unetan eta berehala atzigarri izatea, material berria sortzea eta argitaratzea, bideo-jokoetan beste kide batzuekin elkarlanean aritzea, simulazio birtualetan pertsonaia baten rola hartzea, aldi berean ataza desberdinak egitea... asko dira natibo digitalet jaiotzetik garatzen dituzten trebetasunak. Baina, immigranteok, jakinduria liburuak patxadaz irakurrita jaso dugunok, digitalizatu al gaitzke? Edo gure betiko patua analogiko izatea izango al da?

Nik bai aurreko bai oraingo belaunaldiaren ekarpenak uztartzea nahiago nuke, eta, belaunaldi aldaketaz baino, kultura aldaketaz hitz egitea dut gustu-

ko. Belaunaldi aldaketa baten parametro klasikoetan aritzeak askotan debekuaren biderantz eramaten gaitu: gurasook seme-alabei telefono mugikorra kentzen diegu zigor gisa, eta irakasleok ikasgeletan tableta, smartphonea edo ordenagailu eramangarria erabiltzea debekatzen dugu.

Irakasle askori entzun izan diot mugikorra edo ordenagailu eramangarria ikasgelan izanez gero ikasleak elkarri mezuak trukatzeko arituko direla (gure garaian paperean idatzitako mezuak pasatzen genizkion elkarri), edo, okerragoa izan daitekeena, irakaslea ikasgelan graba dezaketela (egia esanda, aukeran, jaialdi edo afari batean edaten edo dantzatzen baino, nik neuk, nahiago nuke ikasgelan ikasleek egindako grabaketa). Egunerokoan erabiltzen dugun teknologia ikasgelan debekatzeak ba al du zentzurik? Nik dakidala, aurreko mendean nagusi erabili zen teknologia, hots, papera eta boligrafoa, ez zen debeku bihurtu. Ez al gara gai norbanakorekiko errespetua eta pribatutasuna babesten debekurik ezarri gabe?

Asko dira kultura aldaketa honetan agertzen zaizkigun beldur eta mamuak, asko dira urte gutxi barru zentzurik gabeko kezak bihurtuko direnak, eta asko gara ez dugula ikusten ikusten ez dugunok. Ez dugu ikusten teknologia berriek sormenerako eskainitako aukera. Are gehiago, batzuek debekatu egiten dute egunerokoan teknologia berrien erabilera eskoletan, teknologia ikasgaia ez bada, noski. Ikasleei gai berri bat azaltzean, beldur gara gure azalpena baino hobea izan daitekeen bideo bat aurkituko ote duten. Liburu edo apunte gisa erabiltzen dugun material idatzia baino egokiagoa aurki dezakete eta ikasleek. Gainera, teknologia erabiltzen gu baino trebeagoa den belaunaldi berriak gure teknologiaren ezagutza eza azalera dezake besteen aurrean. Beldurra, mamuak, ezjakintasuna... oztupo bihurtzen dira izaera analogiko eta digitalizatua- ren arteko uztartze-prozesuan, horiek denek bihurtzen dute belaunaldi-aldaketa adinik ez duen kultura-aldaketa izan litekeena. Gizabanakook irakasteko zein ikasteko rola izateko prestasuna onartuz gero, uztartze-prozesu aberasgarria sortuko dugu denon artean. •



Egunerokoan erabiltzen dugun teknologia ikasgelan debekatzeak ba al du zentzurik?

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ZABALOUAZOLA SENDIAREN FUNTSA

JOSE FRANCISCO ZABALOUAZOLA, ZERAINGO ARGAZKILARIA

Jose Francisco Zabalozuazola zeraindarra zen izatez. 1878. urteko apirilaren 19an jaio zen baserritar familia batean eta hiru anaietan zaharrena zen. Bere biografiaren datu askorik ez da ezagutzen, baina berak utzitako irudiek agertzen dutenez, goiz samar hasi zela argazkilaritzan. Baserritar mugitua zen, askotariko interesak zituen. Musika maite zuen eta igandetan bera ardurtzen zen Zeraingo elizako harmoniuma jotzeaz. Bere kabuz ikasi zuen hura jotzen. XX. mende hasieran, Bilbora joan zen bizitzera eta Zarrabeitia familiaren elikagai saltoki batean jardun zuen lanean. Bilboko bere egonaldian, hiriaren bazter eta eraikuntza desberdinak jaso zituen argazkitan. Zeraina bueltan, baserriko lanetan aritu zen buru-belarri. Gainera, Zerainen bazuen beste egiteko bat ere: herrian eroritako euriaren datuak helarazi zizkion hogeitaz gero Meteorologia Behatokiari. Baina lanak lan, sekula ez zion utzi argazkiak ateratzeari; bere sendia, lagunak, Zerain eta Mutiloako paisaiak... altxor ederra utzi zuen Zabalozuazolak.

Gv ere baGARA

Iurretako Emakumeen Bira
Txirrindularitza taldea



Harpidetu zu ere GURE BALIABIDEEN ALDE

Iurretako txirrindulariak, Mikel San Jose, Itziar Ituño, Mtz. de Irujo,
eta beste milaka pertsonak bezala, papereko edo interneteko
harpidedun bihurtu zaitezzen eskatu nahi dizugu.
GURE BALIABIDEEN ALDE.

ORAIN DA UNEA

INFORMAZIO GEHIAGO 943 50 60 10



OPARIA zuretzat



+
ZOKKETA

Harpidetza orain egiten baduzu, udarako kalitate handiko jaka*
opari edo lehen hilabetea doan. Gainera, 10 iPhone 6 eta
Galaxy S6ren zozketan sartuko zara.

Horretaz gain, harpidedun izatearen abantaila guztiak!

*Haize-babeslea edo plumiferoa. Nahiago duzuna.

HARPIDEDUNENTZAT OHARRA: Martxoaren 17 an e-maila igorri dizuegu harpidedunoi eskaintza honetan nola parte hartu azaltzen.

